



**Oñatiko
emakume-mojak:
izaera, bizimodua eta
ekarpena ikuspegi
feministatik**

Itsaso Manias Muñoz
Jone Arrazola Maiztegi



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Selma Huxley Barkham bilduma

— 3 —

Itsaso Manias Muñoz
Jone Arrazola Maiztegi

**Oñatiko
emakume-mojak:
izaera, bizimodua eta
ekarpena ikuspegi
feministatik**



Selma Huxley Barkham bilduma
3. alea

© Egileak: Itsaso Manias Muñoz eta Jone Arrazola Maiztegi

© Irudiak eta argazkiak: Aitane Goñi Landa

L.G.: D00087-2024
ISBN: 978-84-921814-7-6

Osaketa grafikoa: Zirrimarra estudio grafikoa (Andoain)
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak SL (Andoain)

Historiak protagonista berak izan ditu beti, eta beti egon izan dira berberak kontakizunaren alde batean eta bestean. Protagonistenean gizonak, eta errelatoaren bazterrean –erdi ezkutuan, isilean, nabarmentasunik gabe– emakumeak. Baina feminismoak argi eta ozen esaten duen bezala, jakin badakigu emakumeen lanari eta sostenguari esker izan direla protagonista historiako izen handi horiek. Ordua da, beraz, historia emakumeok kontatzeko, eta emakumeon istorioak eta historia idazteko.

Aipatutako historia horretan, erlijioa –erlijio kristaua, gure tes-tuinguruan– oso presente egon izan da, askotan kontakizuna bera ardazteraino, eta, noski, gizonen begi eta eskuetatik kontatu izan da, beti beren alde. Gai honetan, zurruntasunak zurruntasun eta iluntasunak iluntasun, badira bereziki isilean mantendu eta gainerako herritarrentzat ezezagun izan diren bizitza batzuk: mojen bizitzak.

Askok, segur aski, ez genuke pentsatu ere egingo mojek eta feminismoak zerikusirik izan dezaketenik. Areago, bi mundu kontrajarrri direla iruditu dakiguke. Zer lotura izan dezakete, bada, feminismoak eta mundu zurrun, ezkutu, boteredun, ezezagun, patriarkal eta goitik beherako horrek? Horretaz hitz egiten da, hain zuzen ere, Selma Huxley Barkham liburu-bildumaren hirugarren ale honetan, zeina argitaratzen baita Oñatiko Udalak emandako izen bereko bekaren laguntzarekin.


Gure herrian aspaldidanik egon da kopuruan nahiko nabarmena izan den emakumeen komunitate bat –mojena–, urteetan modu batera edo bestera herrian eragin izan duena, baina era berean egitura piramidal eta zurrunean beheko eskalan kokatua egon dena, ia-ia ez ikusiak izateraino. Lan honek mojen bizimodua, lana, izaera, komunitate-harremanak eta mundu ikuskera hurbiltzen dizkigu, Oñatiko hiru komunitateetako historia, bizipen eta ekarpenak ikusaraziz. Era berean, mojen komunitatean praktika feministarik edo feminismoarekiko loturarik ba ote dagoen aztertzen du.

IZARO ELORZA ARREGI

OÑATIKO ALKATEA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	9
2. HELBURUAK	13
3. METODOLOGIA	15
4. MARKO TEORIKOA	19
4.1. Erlijioaren, generoaren eta jendartearen arteko katramila.....	19
4.2. Erlijioa eta patriarkatua txanpon beraren bi aurpegi.....	20
4.3. Te(a)logia feministen lorratzean	22
4.4. Eliza Katolikoa, ordena katolikoa eta emakumeak bidegurutzan.....	23
4.5. Ordena katolikoaren feminizazioa, patriarkatua elikatzeke eta iraunarazteko tresna.....	24
4.6. Emakumezkoen kongregazioen bilakaera Euskal Herrian eta Oñatiko testuingurua.....	25
5. EMAITZEN (DES)KONPOSAKETA	31
5.1. Mojen izaera	31
5.1.1. Kristautasuna garaiko jendarte frankistaren gako soziologikoa	31
5.1.2. Moja-hautuaren atzean dauden arrazoiak.....	32
5.1.3. Jendartea kapitalismoaren esklabo, baita mojak ere.....	33
5.1.4. Zaintza-eredu egokiena eta komentuen etorkizuna	34
5.1.5. Ohorezko dominak, apaizak vs mojak	36
5.1.6. Marra moreak eta marra gorriak komentuetan	37
5.2. Mojen bizimodua	39
5.2.1. Komunitate-bizitza zer den	40
5.2.2. Botoak	41
5.2.3. Eguneroko errutina	42
5.2.4. II Kontzilioa, aro berri baten hasiera	44
5.2.5. Kongregazioak iraunarazteko baliabide ekonomikoak.....	46
5.2.6. Zahartzaroaren zaintza-beharrak.....	48
5.3. Mojen ekarpena	49
5.3.1. Norbere burua ezagutzea.....	49
5.3.2. Beneditarren eskola, balioen trasmisiorako gako-proiektua.....	50
5.3.3. Sostengu emozionala.....	51
5.3.4. Borondatezko lanak	52
5.3.5. Kongregazioen etorkizuna eta jendartearen fede falta aurrez aurre	53
5.3.6. Boterea: aitortza ala estigma?.....	54
6. AZKEN EZTABAIDA	57
7. ERREFERENTZIAK	61





1. SARRERA

Gaur egun, genero-ikuspegiaren fokua bizitzako gero eta arlo gehiagotan dago presente. Bistan da arreta berezia jarri zaiola emakumeen ikusgarritasunean oinarritutako feminismoari. Goraldi hori izugarria izaten ari da hainbat jardueratan, besteak beste, komunikabideetan, publizitatean, musikan, literaturan, kirolean, politikan, enpresan, zineman edo zientzian. Hala ere, bada oraindik eremu tabu bat zeinetan ez den lortu patriarkatuaren gudu-zelaia zulatzea. Esparru hori erlijioarena da; alegia, espiritualitatearekin zerikusia duten barrutiena. Gutxi dira, oro har, gizarte zientzietatik erlijio-kontuei eta genero-ikuspegiari eskainitako ikerketak. Beste herrialde batzuekin alderatuta, Espainian, feminismoa eta erlijioaren tandem ibilbide gutxiko ikerlerroa dela esan daiteke (Alonso-Seoane, 2019). Ikerketa-esparru horri oraindik hurbilpen zientifiko gehiago zor diogu, baina apurka-apurka bada ere, aurrerantzean, eremu tabu honetan genero-ikuspegia txertatzen hasiko diren ikerketak gero eta ugariagoak izango dira (Blazquez-Rodríguez, 2021).

Gaude emakume-moja ¹izatea badela menderakuntzarako bide bat, botere-harremanen sisteman ertzeko posizioetara baztertuak izateko modu bat. Horregatik, eta hortik abiatuta, lan honek, ikuspegi zein praktika patriarkal eta feministak emakume-mojen komunitatean zein neurritan dauden aztertzea du xede. Horretarako, Oñatiko hiru komunitate hartu dira kasu azterketa gisa: Santa Anako eta Bidaurretako Klaratarrena eta Beneditarrena.

¹ Liburuan emakume-moja adiera erabiliko dugu nabarmentzeko mojak emakumezko kolektibo bat direla. Helburua da mojen ezaugarri hori hizkuntzaren bitartez ikusaraztea; izan ere ezaugarri hori oinarritzkoa da ikerketa-lan honetan.



Katolizismoaren feminizazioa ezin uler daiteke emakumezkoen kongregaziorik gabe, eta emakumezkoen kongregazio horiek ezin uler daitezke emakume-mojarik gabe. Mendez mendez, katolizismoaren baitako emakume erlijiosuen feminitate-ereduak aldatzen joan dira. Halere, urteetan zehar, emakume-mojen iruditeria kolektibo jakin bat elikatu eta nagusitu da. Iruditeria kolektibo horrek askotan subjektu ahul gisa identifikatu izan ditu mojak. Hau da, aita espiritualen edota apaizen jarraitzaile leial eta sutsuak bezala antzeman izan ditu; beti behartsuenak “modu desinteresatuan” zaintzeko prest zeudenak; pobrezia, desberdintasunaren eta diskriminazioaren zaindari eskuzabal eta apalak; sukaldari finak eta gozogileak. Hain zuzen, gozotasunarekin ere lotu izan da emakume-mojen izaera, eta ez alferrik gainera. Izan ere, izaera garrantzeko (abadesei) edota men egiten ez zuten mojei mesfidantzaz begiratzen zitzaizkien; areago, deabruarekin parekatzen zituzten (Minguez, 2016). Gaur egun ere, irudi hori elikatzen jarraitzen da alde bateko eta besteko ekoizpenekin (Varela, 2021). Maskulinitatea, aldiz, Jainkoarekin lotu izan da, hots, bertutea eta egia absolutua duen figurarekin.

Angela Davis pentsalari feministak *Mujeres, raza y clase* (2005) liburuan identifikatu modura, mendebaldeko estatuak eta sistema patriarkala, kapitalista eta koloniala dira eta zapalkuntza-sistema horiek zedarritutako lanen banaketa eman da. Hala, urte askotan, mojen kolektiboak alboratutako jardun sozial eta ekonomiko asko hartu ditu bere gain. Garai batean, besteak beste, emakumezkoen hezkuntzaz, osasun arretaz, adinduen zaintzaz edota zahar egoitzen kudeaketaz arduratzen

ziren. Oñatin bertan ere badugu horren adibiderik: Karitateko alabak. Lan horretan guztian, mojei beti eskatu izan zaie balio jakin batzuk izatea: obedientzia, diligenzia, apaltasuna, kastitatea, eroapena edota sakrifizioa. Gaude mojen iruditeria horrek, emakume kongregazionista askoren alderdi apurtzaileenak ezkutatu izan dituela. Emakume horien anbizioa, autoritatea, lidergoa, adimena, erabakiak hartzeko ahalmena, lorpenak eta autogestioa, besteak beste. Beraz, emakume gisa, nola praktika daiteke erlijio bat eta aldi berean feminismoaren ideiak defendatu? Batera ezina al da fededuna eta feminista izatea? Posible al da gizakume eta emakumeen arteko desberdintasunei aurre egitea emakumeen ikusezintasuna sustatzen duen instituzio baten barruan?

Bitxia da, bestalde, jakitea badirela moja batzuk kongregazio batera batu direnak haien kontzientzia askatasuna, ikasketa-prozesua eta emantzipazioa mamitzeko (Martín-Gaite, 1987; Rivera, 2005; Aguilera-Bermudez, 2014;). Hau da, sistema heteropatriarkalak inposatutako bizi-ereduari (ezkonbizitza) iskin egiteko ere baliatu izan dute kongregazionismoa. Premisa horrek ere galdera hau egitera garamatza: Zeintzuk dira Oñatiko emakume-mojen bizi-hautuaren atzean dauden arrazoiak? Haien bizi-eredua (komuna autogestionatua) oasi txiki bat al da sistema patriarkalean? Zein ezberdintasun dago Oñatiko hiru kongregazioen artean? Iruditeria kolektiboarekin bat al dator haien bizimodua eta izaera? Nolakoak dira Oñatiko emakume-mojak haien komuna autogestionatu barruan?



2. HELBURUAK

Ikerketa-proposamenaren izenburuak adierazten duen legez, gure jakinkizun nagusia hauxe da: Oñatiko emakume-mojen izaera, bizimodua eta ekarpena arakatzea ikuspuntu feministatik. Helburu hori, ordea, ondorengo azpi helburu hauekin osatu dugu:

Helb1 Oñatiko mojen jatorriak (testuinguru soziologikoa), bizi-hautuaren arrazoiak, izaerak eta gaur egungo kezkek aztertzea ikuspegi feministatik.

Helb2 Mojen bizimodua ezagutzea eta komunitatearen antolaketa-moduak ikertzea.

Helb3 Mojen lanbideak zein egitura sozioekonomikoa (barne erregimena) ezagutzea eta herriari egindako ekarpena arakatzea.

Ikerketa-proiektu honek lau oinarritzko hipotesi ditu eta horiei lotutako lau ikergaldera:

H1 Balio kristau eta feministen artean bateragarritasunak eta talkak daude. Oñatiko mojak eta feminismoa bateratzen dituzten praktiken artean aurkitzen dira anbizioa, lidergoa, adimena, autoritatea, erresistentzia eta ahizpatasuna.

Ikergr1 Zein da Oñatiko emakume-mojek feminismoaz duten iritzia eta ikuskerak? Zein irakurketa egiten dute?

H2 Oñatiko kongregazioetako bizimodua anitza da. Kongregazio bakoitzak antolaketarako modu ezberdinak ditu, baina bada ezaugarri amankomunik: autofinantzaketa eta autogestioa.

Ikergr2 Mojen gehiengoak zahartzaroan egonda, ba al dute autonomia eta dependentziaren arteko barne eztabaida kolektiborik? Zein litzateke Oñatiko mojen zaintza-eredu egokiena?

H3 Mojak komunitateari zerbitzua emateko lanetan ibili dira gehienbat: hezkuntzan, osasungintzan eta menpekoen zaintzan. Alegia, erakunde publikoek emakumei besterengatatu izan dizkieten atzetan.

Ikergr3 Egindako ekarpenaren aitortza berbera al da gizon-apaizen eta emakume-mojen kasuetan?

H4 Oñatiko emakume-mojen iruditeria ez dator bat enpirikoki behatutako errealitatearekin: mojen elkarte bizimodua (autosufizientzia, autogestioa eta jasagarritasuna) eta izaera hurbilago dago diskurtso feministatik balio patriarkaletatik baino.

Ikergr4 Botoei lotuta, ba al dute kontzientzia kritikorik egungo jendarte kapitalistaz?



3. METODOLOGIA

Ikerketaren helburuak lortzeko, hipotesiak argitzeko eta ikergalderei erantzuna emateko teknika kualitati- boak eta kuantitati- boak erabili ditugu, besteak beste, inkesta eta eztabaida-taldeak. Horrez gain, marko teo- rikoa landu ahal izateko liburu, artikulua eta baliabide akademikoen dokumentazio-lana ere egin dugu. Hala, lehen mailako zein bigarren mailako informazio-iturriak baliatu ditugu.

Lehen fasean eta garapen fasean, hain zuzen, baliabide akademikoen azterketa egin dugu: hasieran oinarriko teoria bildu genuen eta segidan lehen elkarrizketak egi- ten hasi ginen. Elkarrizketetan ateratako ideiak ulertu eta osatzeko teoriara jo dugu etengabe. Mojek ere hainbat teologoren lanen gomendioak egin dizkigute. Hala, liburu, artikulua eta testu historikoak irakurri di- tugu: historialari zein teologo feministek idatzitakoari erreparatu diogu. Haien ekarpena ere interesgarria gertatu zaigulako Oñatiko errealitatearen irakurketa feminista egiteko. Kongregazioetako artxibo eta liburu- tegiak aztertzea ere bazen gure xedeetako bat, baina ez dugu horretarako betarik izan, eta dokumentazio lana murriztu behar izan dugunez, aurrez aurreko elkarriz- ketak eta harremana lehenetsi dugu.

Ikerketaren ezaugarriak kontuan hartuta, ezinbestekoa izan da moja komunitateen parte hartzea lotzea ikerke- ta abiatu aurretik. Oñatiko mojek parte hartzeko pres- tutasuna erakutsi ziguten 2020ko azaroan hiru komen- tuetara egindako bisitetan. Ikerketa lagina 58 mojakoa zen ikerketaren hastapenean: Bidaurretan 17 moja daude, Beneditarretan 10 eta Santa Anan 21. Gehienek 70 urte baino gehiago dituzte eta horrek ere eragina izan du ikerketan. Izan ere, mojej memoria-ariketa bat egitea eskatu behar izan zaie; iraganeko kontuak gogo- ratu behar izan dituztelako. Atzera begirakoa egiteko

parada eman diegu, nabarmentzekoa iruditzen zaien hori lehenetsi dugu eta, batez ere, euren bizi-erritmoak errespetatu ditugu. Barrura begira bizi diren komunita- teak izanik, gure presentzia eta interesa eskertzekoak izateaz harago, mojek adierazi ziguten ez zeudela hala- koetara ohituta. Hori ikusita, konfiantza ereitea izan zen lehentasuna.

Komunikazio kanalei dagokionez, ikerketa-prozesuan zehar, komentu bakoitzeko moja batekin izan dugu ha- rremana. Elkarrizketa-hitzorduak ere haiekin zehazten genituen. Kontaktua telefono bidezkoa izan da Bidaur- rretako mojurekin eta posta elektroniko bidezkoa Bene- ditarrekin eta Santa Anako mojekin. Azken bi hauen ka- suan, komunikazioa erraza izan da, baina Bidaurretako mojurekin egotea gehiago kostatu zitzaigun hasieratik.

Komentu bakoitzaren argazki orokorra atera ahal izateko, mojej hautazko inkesta bat egitea proposatu zaie. Inkestaren helburua izan da mojen datu demografi- koak ezagutzea (jaiotokia, urtea, familia-kideen kopu- rua, maila ekonomikoa); bizi-hautuaren ingurukoak aztertzea (adina, zergatia, familiaren adostasun maila, sentipenak), moja bizimoduaren nolakotasunak ezagu- tzea (horizontaltasunaz, ahizpatasunaren gogobetetze- maila, gatazken iturriak); eta azkenik, herriari egindako ekarpena eta aitortza (gogobetetze-maila) arakatzea. Iritziak neurtzeko, aldiz, eskala (1-5) bat sartu dugu. Gal- detegia teknika eraginkorra iruditzen zitzaigun 49 ahiz- pen lehen argazki bat izateko, baina ez zuen esperotako emaitza eman; izan ere, 12 erantzun jaso genituen (Bi- daurretan bat, Santa Anan 6 eta Beneditarretan 5 inke- sta bildu ziren). Datu horrek, neurria eman zigun, ordea, ondorengo prozesuetan egon zitekeen parte hartzea baloratzeko.

Abiapuntu horrekin, jasotako laginaren ordezkagarritasuna zalantzan jarri genuen eta teknika kualitati-boarekin hastea erabaki genuen; elkarrizketak egitea proposatu genienean, Beneditarrek eta Santa Anakoek adierazi ziguten nahiago zutela talde elkarrizketa egin. Izan ere, inoren izenean hitz egin baino, edonork parte hartzeko aukera izatea hobetsi zuten. Hala, deialdiak egiteko ardura hartu zuen gure kontaktuak eta saio bakoitzera nahi eta ahal zuena azaldu zen; Bidaurretan, berriz, elkarrizketa bat egiteko prestutasuna moja batek adierazi zuen.

Hala, Beneditarretan hiru saio egin genituen eta beste hiru Santa Anan; Bidaurretan, berriz, bat egin genuen eta ez zigun beste baterako aukera eman.

Elkarrizketetan galdera guztiak libre erantzutekoak izan ziren; nahi zuenak hartu zuen hitza eta bere iritzia partekatu zuen. Esperientziari buruz galdetzean, bilatzen genuena zen guztiek euren partekatzea. Aldiz, iritzia ematea eskatzen genienean, soilik nahi zuenak hartzen zuen hitza. Hala, batzuetan euren arteko eztabaida sortu zen, elkar osatzen zirelako edo, kasu gutxi batzuetan, desadostasuna zegoelako. Elkarrizketa horietatik jasotako datu guztiak ikerketa-txostenean modu anonimoan jasotzea adostu genuen. Hala, parte hartzaile bakoitzari zenbaki-kode bat esleitu genion.

Elkarrizketak amaituta, hiru komunitateei galdetu genien behaketa parte hartzailea egiteko aukeraz, interesatzen baitzitzaigun ikusezina zaigun mojen egunerokoa gertutik ikustea eta ezagutzea. Eta erantzun ezberdinak jaso genituen: Bidaurretan ezezkoa eman ziguten, barrura sartzeko debekuan oinarrituta; Santa Anan baimena eman ziguten goiz bat haiekin pasatzeko eta Beneditarretan etxea barrutik erakusteko prest agertu ziren. Beneditareen etxea barrutik ikusi genuen, ordu erdiko bisita-gidatu batean. Aukera bakarra izango genuela ohartuta, Santa Anako bisita hedapen fase-rako uztea adostu genuen, argazkilariarekin joan ahal izateko.

Saio guztietan, mojen lekukotasunak audio-grabagailuarekin grabatu dira, eta argazkiak atera dira, etxe barruko bisita gidatuan izan ezik. Ahots-grabaketak udal artxiboari eskainiko zaizkio. Ikerketako parte hartzaileek baimen informatua sinatu zuten ikerketan parte hartzeko.

Hizkuntzari dagokionez, elkarrizketak ele bitan izan dira: guk galderak euskaraz planteatu ditugu eta euskaraz ongi ulertzen ez ziguten kasuan, gaztelaniaz errepikatu ditugu; moja bakoitzak hautatu du euskaraz ala gaztelaniaz egin. Gaztelaniako hitzak euskararatu egin ditugu testuan txertatzeko.



4. MARKO TEORIKOA

4.1. Erljioaren, generoaren eta jendar-tearen arteko katramila

Mojen eta feminismoaren arteko erlazioa ulertzeko, interesgarria izan liteke erljioaren, jendartearen eta generoaren artean dagoen harreman-sistema nolakoa den aztertzen saiatzea.

Jendartearen eta sexu-genero sistemaren arteko harremana aspalditik dute ikertua alde bateko eta besteko lan antropologikoez eta teoria feministek (Beauvoir, 2017; Davis, 2005; Gamba, 2008; Esteban, 2004, 2017; Agirre eta Eskisabel, 2019;). Lan horien oinarritzeko pre-misetako bat honako hau da: gaur gaurkoz, ez dugu ezagutzen genero-sistemarik gabeko jendarterik. Hain justu, bizi, ezagutu eta ezarri zaigun genero-sistema nagusiena sexu-genero binarioan oinarritzen da; alegia, gizonak eta emakumeak bereizten dituen sexu-genero sistema dugu, gaur eta hemen, jaun eta jabe. Hain zuzen, teoria feministek egiaztatu dute emakume eta gizon izatea eraikuntza sozialak direla, hau da, pertsonok, ikasketa-prozesu eta praktikaren bitartez, emakume eta gizon izaten ikasten dugula.

Halere, azken aldian, generoaren bestelako kontzeptu bat garatu da: generoaren eraikuntza ez dela zurruna edo higieztina, hau da, ez dela feminitate edo maskulinitatean soilik oinarritzen, eta, horrez gain, sexu biologikoa bera ere eraikia dela esan dute, hau da, generoa ezabatu beharreko kategorizazio bat dela (Lagarde, 1993; Cabral eta Garcia, 1998; Agirre eta Eskisabel, 2019). Haatik, ideia garatu horrek alde bateko eta beste pertsonen ahalbidetu die sexu- eta genero-sistema hegemonikotik (binarismotik) askatzea, eta, haien buruaren jabe izanik, errealitatea eraldatzea. Bide ho-



rretan, tokian tokiko LGTBIQA+ aktibismoak, Queer mugimenduak eta Queer teoriak (Butler, 1990; Fausto-Sterling, 1992; Preciado, 2002; Halberstam, 2008) dira, besteak beste, sexu-genero sistema binarioak baztertu-tako norbanakoen burujabetza gauzatzeko ekarpenak egin dituztenak.

Sistema patriarkalak hauspotutako binarismoaren logikan, gainera, maskulinitatearen eta feminitatearen balio eta ezaugarri kontrajarriak ikus daitezke. Lehena bigarrenaren gainetik dago bereizgarri, rol, funtzio eta jendarteko botere-sistema nagusi guztietan. Agirre eta Eskisabelek (2019) dioskue feminitatearekin zerikusia duen guztia azpiratzeko eta zapaltzeko joera sistemikoa bizi dugula. Alegia, naturalizazioaren bitartez lortzen dela "azpiratze-egoeran dagoen norbanakoari sinetsaraztea hori dela naturaz, berez, dagokion lekua. (...) Azken batean, haien ezaugarri eta gaitasunen arabera positioa dutela botere-sarean" (ibidem, 2019:24,25). Binarismoaren logikara ekarrita, beraz, zeintzuk lirarte-ke mendez mendez emakumezkoei eta gizonezkoei si-

netsarazi dizkiguten funtzioak eta balioak? Hainbat lan dira ezaugarri horien azterketan fokua jarri dutenak, baina Agirrek eta Eskisabelek (2019:28) Blanca Elisa Cabral-ek eta Teresa Garciaren (1998) eskematik abiatuta honela laburbiltzen dituzte:

- Gizonezkoarekin eta maskulinitatearekin loturiko estereotipoak dira *indartsua, adimentsua, logikoa, arrazionala, aktiboa, dominatzailea, asertiboa, zakarra, oldarkorra, apurtzailea, produktiboa, independentea, autosufizientea, irmoa, erabakitzailea, segurua, egonkorra, lehiakorra, saiatua, penetratzailea*.
- Emakumezkoarekin eta feminitatearekin loturiko estereotipoak dira *ahula, ederra, emozionala, irrazionala, intuitiboa, pasiboa, otzana, seduzitzailea, goxoa, leuna, neurritsua, erreproduktiboa, mendekoa, esanekoa, harkorra, eraman eta egonarri handikoa, zalantzatia, aldakorra, kolaboratzailea, irmotasunik gabekoa, penetratua*.

Bereizgarri horiek,aldi berean, badute publiko eta pribatu izaerarekin ere harremanik. Cabral eta Garciaren (1998) arabera, gizonezkoarekin lotutako estereotipoek ekintzarekin eta espazio publikoa okupatzeari atxikitako rolerkin lotzen dute maskulino izatea: borrokatze-ko, irabazteko, erasorako, konkistatzeko, dominatze-ko, kontrolatzeko edota bere sexu-desira adierazteko. Emakumezkoekin lotutako estereotipoek, aldiz, zerbitzu-rolerkin, besteen zaintzarekin eta espazio pribatura mugatutako ekintzekin lotzen dute femenino izatea, eta horretan gaitzen da emakumea: itxaroten, besteak lehenesten, galtzen, defendatzen, bere buruari mugak jartzen, konkistatua izaten, otzan agertzen, seduzitzen edota bere desirak ezkututzen.

Laburbilduz, ezagutzen dugun sistema patriarkalean, genero nagusi denak (gizona) bestearen menderakuntza eta ustiapena (emakumea) eragiten du. Bestela esanda, egungo sisteman, emakume izatearen parte ere bada normaltzat hartzea gizonek dituzten bizi-aukerak ezberdinak eta hobeak direla, edota emakumeen espazio publikorako sarbideak oztopoz beterik daudela. Gizonek lan produktiboaren eremua konkistaturik duten bitartean, emakumezkoak lan erreproduktibora mugatu ohi dira, eta, maiz, eremu produktibora atxikirik daudela erreproduktiboaz ere arduratu behar izaten dira horrek dakarren gain-zama eta albo-kalte guztiekin: denbora-pobrezia, ariketa fisikoa eta buru-osasuna gutxitzea, osasun fisiko eta mentala gutxitzea, autoexigentzia maila altuegia, autoestima baxua, besteak beste. Gure ikerketa-objektuari (Oñatiko emakume-mojak), baina, beste elementu baldintzatzaile bat gehitu behar zaio: Erlijioa.

4.2. Erlijioa eta patriarkatua txanpon beraren bi aurpegi

Feminismoa bezalako mugimendu sozial konplexua ulertzeko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, patriarkatuaren erroa ezagutzea. Feminismoak hamarkadak daramatza emakumeen eta gizakumeen eskubide berdintasunak aldarrikatzen. Alegia, tradizioz eta sistemaz, emakumeari erantzi zaizkion aitorten eta eskubideen alde borrokatzen jarraitzen du. Deskribatutako egiturazko gatazka horretan guztian, gako-elementu bi daude oinarrian: misoginia eta matxismoa. Hain zuzen, misoginiaren ernamuina erlijio monoteisten eta patriarkatuaren ikusmoldean aurkitzen da (Bravo, 2019). Erlijioek sistema patriarkala (matxismoa) sustatu eta zabaldu dute. Hala, emakumearekiko mespretxu eta gutxiespen historikoa, besteak beste, erlijiotik dator (Saramago, 2009).

Erlijio monoteistak, oro har, egitura piramidal gisa planteatzen dira. Zinez patriarkalak dira gehienak, eta aise identifika daitezke sineskera itxiak eta sektarioak. Erlijio bateko eta besteko doktrinek, adibidez, emakumeak arriskutsuak, miserien errudunak eta bekatariak direla irudikatu izan dute mendez mende. Patriarkatu erlijio-tsua, hain zuzen, maskulinitatearen idealak arautzen dituen jokabide patroietan oinarritutako doktrina da. Kristautasunak, beste erlijio askok bezala, Jainkoa simbolo eta atributu maskulinoekin lotzeko irudiak sortu eta zabaldu ditu, eta horrekin patriarkatu politiko eta soziala legitimatzen du. Mary Daly (1973) filosofo femi-





nista estatubatuarrak honela azaltzen du patriarkatu erlijiosua: Jainkoa gizonezkoa bada, gizonezkoa Jainkoa da. Hots, Jainkoa maskulinoa dela aitortzea patriarkatuaren menderakuntza-sistema justifikatzea eta legitimatzea da. Horregatik dio Eliza, orokortasunean hartuta, zurruna, patriarkala eta homofobia dela. Areago, mendebaldean, legeen laguntza egonda ere, oraindik zaila bada gizonen eta emakumeen arteko parekidesuna lortzea, munduko erlijio gehienetan gizonekiko berdintasuna izatea utopikoa dela ere esan ohi da. Horrenbestez, jendarterearen eta erlijioaren arteko lotura joan-etorrikoa dela ondoriozta daiteke; erlijioek pertsonak taxutzen dituzte eta haien mezuekin jendarteak eraikitzen dituzte. Erlijioak tresna sozialak dira, eta gu haien objektu eta ispilu gara.

Erlijioak matxistak dira? Victoria Camps eta Amelia Valcarcel (2007) Filosofia moral eta politikoko katedradunek diote ez dela egon inoiz jendarterik zeinetan emakumeek duintasuna eta oinarritzko eskubideak izan dituzten, hots, ez dela existitzen emakumeak diskriminatzen ez dituen erlijiorik; izan ere, erlijioek ez dute inoiz jendarterearen kontrakoa esaten. Beraz, bai, jendarte matxista bada, erlijioak ere matxistak direla

ondoriozta daiteke. Horregatik uste dute garrantzitsua dela emakumeen prestakuntza teologikoa egokia izatea sistema patriarkalaren transmisio-uhalek ez bihurtzeko. Gaude Camps eta Valcarceren gogoeta hori ez dela soilik emakume erlijiosuei loturiko zerbait izan behar, baizik eta edozein pertsonari, fededun izan edo ez, aplikatu dakioken zerbait dela. Izan ere, patriarkatuarekiko iragazgaitasunak ez du sexu-generorik bereizten. Egia da, halaber, kongregazioetako ideien-sistema moldatzeko eta feminismoa ekartzeko gako eta saiakera esanguratsuenak teologia feministak egin dituela. Hala, mundu-ikuskera zabalagoak ahalbidetu dituzten fede-bizitza horietaz hitz egitea ere ezinbestekoa zaigu lan honetan.

Gaur egun, gero eta eliza-emakume katoliko gehiago dira feminismoaren aldarrietara batu direnak. Egoitza Erroman duen baina nazioarteko emakume katolikoak barnebiltzen dituen *Voices of Faith* mugimendua eta eztabaidarako plataforma dugu adibideetako bat. 2014an sortutako mugimendu aktibista honek, besteak beste, nazioarteko sare sendo bat osatu du Eliza Katoliko patriarkalarekin amaitzeko eta emakume katolikoaren parte-hartzea defendatzeko Eliza Katolikoaren erabakietan. Siltasunaren kultura apurtzeaz gain, liderrak

izateko askatasuna, erabakiak hartzeko eskubidea eta elizgizonekiko eskubide-berdintasuna eskatzen dute (Voices of Faith, 2018; Albarrán-Méndez, 2020). Haien Youtube kanala oso oparoa da; eduki, ekarpen eta eztabaidagai asko ematen dute aditzera. Adibidez, emakume-mojei tresnak ematen dizkie eliza barruan paira dezaketen egoera matxistak, paternalistak eta askotari-ko botere-abusuak identifikatzeko: *Red flags in religious life* izeneko bideo-sorta da horri buruz aztergai dagoen material interesgarria. Beraz, Eliza Katolikoan ere emakume-mojek ezkutuan bizi duten abusuen errealitate bat ere jartzen dute mahai gainean.

Talde aktibista horrez gain, helburu berdinak partekatzeko beste kristau-mugimendu batzuek ere merezi dute aipatuak izatea: 1) *Asociación de Teólogas Españolas*, 2) *Red Latinoamericana de Católicas por el Derecho a Decidir* 3) *Mujeres y Teología* edota 4) *Revolución de Mujeres en la Iglesia*. Bistan da Eliza Katolikoak sustatu duen beirazko-sabaiaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan, alde bateko eta besteko emakume-teologoak, parrokia-kideak, emakume eliztarrak eta kongregazionistak altxatu direla. Guztiek eskatzen diote Vatikanuari eliza berdintsuen arteko komunitate izatera itzul dadin, eta berdintasun hori bihur dadila usadio.

Aldarri horien lehen aztarnak, baina, emakume-sufragistetan aurki daitezke. Emakumeei eta erlijioari buruzko lehen ikasketak gehiengo protestanteko herrialdeetan (mendebaldeko herrialde aberatsak) jaio ziren, eta elkarren eskutik joan ziren prozesu indartsu gisa. Harreman horren oinarritzko mugarririk 1848ko *Seneca Falls* adierazpena izan zen; Lucretia Mott eta Elizabeth Cady Stanton sufragista eta abolizionistek New York-eko kapera batean aurkeztua. Bertan, emakumeen bizitza erlijioetsuko eskubideak aldarrikatzeko hamabi erabaki proposatu zituzten baina, bereziki, bozkatzeko eskubidearen aldarria izan zen garrantzitsuena. Adierazpen horretan, halaber, Mott-ek eta Cady Stanton-ek baieztatu zuten emakumeen parte-hartzea mugatzen zuen faktoreetako bat idatzi Santuen interpretazio desitxuratua zela (Blázquez-Rodríguez, 2021). Argumentu horri tira-ka, Cady Stantonek 1895ean Europako beste emakume-teologo batzuekin *The Woman's Bible* izeneko testuak argitaratu zituen zalantzan jarriz Bibliako hainbat auzi, besteak beste: sexu-desberdintasuna, emakumearen ahultasuna eta gizakumearekiko mendekotasuna. Lan horrek, hain zuzen, ateak ireki zizkion ondotik landu eta garatutako hainbat ikerlerro eta aldarriri, bereziki: Mary Daly "kristau" femistaren lanei (*The Church and the Second Sex*, 1968; *Beyond God the Father*, 1973 edota *Gyn/ Ecology: The Metaethics of Radical Feminism*, 1978). Lan horiek, hain zuzen, teologia feministak loratu eta hozitu zituen ondoren.



4.3. Te(a)logia feministen lortzean

Teologia feministen mugimenduak erlijio monoteistetan daude presente: Kristautasunean, Judaismoan, Islamismoan eta Sijismoan. Teologia feministek Liburu Santuen, Testu Sakratuen, Jainkoen eta erlijio-doktrinaren berrinterpretaketa egiten dute ikuspegi feministatik eta genero-ikuspegitik. Isabel Gómez Acebok (2003) emakume-teologo feministak hiru multzotan sailkatzen ditu teologia feminista katolikoaren posizioak:


- 1) Mary Daly-ren bidea jarraitzen dutenak eta, beraz, Eliza Katolikoaren forma konbentzionaletatik aldantzen direnak.
- 2) Teologia berri bat proposatzen dutenak eta, beraz, emakume-jainkoaren eta dibinitatearen irudi femeninoa aztertzen dutenak.
- 3) Kristautasunari barne azterketa egiten diotenak eta "askatasunaren teologia" bat proposatzen dutenak. Ivone Gebara teologia feminista brasildarraren korrantea litzateke hori.

Halere, Eliza Katolikoak eta eliza kristauek, oro har, feminismoaren agendarekiko izan duten jarrera ezko- rrek, kristautasunaren eta feminismoaren integrazio teologikoa oztopatzen jarraitzen dute (Blázquez-Rodríguez, 2021). Dena den, ikusi dugu jadanik badaudela traba horiek lausotzen eta dikotomia hori adiskidetzen saiatzen diren erakundeak eta ikerketak. Espainian, Concepción Gimeno, Elisa Lamas, Teresa Forcades edo ta Mercedes Navarro Puerto dira emakume-teologo feminista ezagunetako batzuk.

Aipatutako emakume-teologoek ekarpenak oso ezagunak ez diren arren, Blázquez-Rodríguez (2021) antropologoak diosku Espainian Eliza Katolikoaren baitan arreta gehien erakarri duen fenomeno beste bat izan dela. Fenomeno hori, hain zuzen, XIX. mendean sortu eta hedatu ziren emakume-kongregazionisten mugimendua izan da. Elizaren feminizazio hori axola handiko gertakari historikoa dugu. Aurretik aipatu dugun moduan, bizitza erlijioitsuak emakumeei eskaintzen zion abantailetako bat, hain justu, ezkonbizitza aldentzea izan zen. Alabaina, jakin badakigu bizitza sakratuarekin harremana duen guztia ikusezin ere bihurtu duela patriarkatuak eta, hartara, emakume-mojen izaera, bizimodua eta ekarpena aitortu gabe dago oraindik.


4.4. Eliza Katolikoa, ordena katolikoa eta emakumeak bidegurutzean

Emakumeen eta erlijioaren arteko harremanak gatazkatsuak izan dira historikoki. Kristautasunaren barruan, Eliza Katolikoaren kasu zehatzera joanda, bi ikuspegi kontrajarri bereiz ditzakegu. Batetik, katolizismoak izaera femeninoaren irudi negatiboak hedatzen ditu eta emakume erlijioitsuak menpeko roletan jartzen ditu eliza-egituraren barruan. Bestetik, aldiz, Eliza Katolikoak



berak, aldi historiko batzuetan (XVI². eta XIX³. mendean), bere burua botere edo tresna-feminizatzaile gisa aurkeztu izan du, femeninotzat jotako balio batzuk irudikatuz eta gorpuztuz (Delgado, 1993; Minguez, 2012).

Minguez (2012) historialariak Eliza Katolikoaren diskurtsoaren feminizazioa eta emakume erlijioitsu eta kongregazionisten diskurtsoa aztertu ditu. Bere ikerketak erakusten du erlijioaren feminizazioak erreferentzia egiten diola elkarri lotuta dauden hainbat prozesuri eta interes katolikoari. Diskurtso-aldaketa edo berrinterpretaketa garrantzitsuena, hain zuzen, XIX. mendekoa da. Garai hartan, Espainiako Eliza Katolikoak Iraultza Liberalaren eragin sozioekonomikoak pairatu zituen bere egitura instituzionalean (monasterioen desagertzea eta bazterketa, ondasunen desamortizazioa, hamarren desagertzea). Elizak ordura arte bizitzako hainbat arlotan zuen jarduna, estatusa eta monopolioa ere gal-



2 Erreforma protestanteak izan zuen lekua.


3 Iraultza liberalak izan zuen lekua.

du egin zituen, harik eta 1851ko konkordatuak heldu zen arte. Egoera berriaren aurrean, galdutako eremuetan presentzia irabazteko eta boterea berreskuratzeko, apezpiku eta apaiz batzuek konponbide moduan ikusi zuten emakumeek ere eliza-bizitzan eta bizitza sozialean modu subordinatuan parte hartzea. Ere horiek, bereziki, hezkuntzakoak eta ongintzakoak ziren; alegia, jendarteak emakumeei delegatutako esparruak. Gero, poliki-poliki, Estatuak hasiko zen eremu horietan arduratzen.

Hala, helburu hori lortzeko, Elizak testu klasiko asko berrinterpretatu eta diskurtso berri bat zabaltzen hasi zen. Berrinterpretatutako diskurtso horiek, ordura arte emakumearen ahultasuna eta femeninoaren hauskortasuna zabaltzeko erabiltzen ziren berberak ziren baina, kasu honetan, eraldaketa soziala erdiesteko eta emakumeen parte-hartzea justifikatzeko baliatu eta moldatu zituen (Minguez, 2012). Adibidez, II. Karlistaldia hasi arte, liberalismoaren mehatxuari aurre egiteko *La Margarita* astekariak emakume karlisten parte-hartze politikoa sustatzen zuen, eta "*Política femenina*" atalaren bitartez liberalisten aurka altxatzeko gonbida egiten zitzaizkien. Kontuan izan behar da, halaber, astekari horrek jomugan zuen irakurlea emakume burgesa zela, hau da, fededuna eta esanekoa. Hartara, ez dugu ahaztu behar emakumeari buruz zabaltzen zuten irudia erabat subordinatua zela.

Testuinguru horretan, helburua oso garbia zen: liberalistak garaitzea eta jendarte berri kristautzea. Astekari Karlista horrez gain, beste apezpiku batzuek ere haien diskurtsoa aldatu zuten emakumeak erlijio-esparrura erakartzeko eta haien parte-hartzea justifikatzeko. Trantsizio horretan, besteak beste, Antonio María Claretren "*Avisos muy útiles a las casadas*" eta Joaquín Roca y Corneten "*Manual de madres católicas*" lanak dira aipagarrienak.

Laburbilduz, XIX. mende erdialdean, oro har, hiru joera nabarmentzen dira: 1) emakumeen artean erlijio-praktika areagotzen da, 2) eliza-egituraren barruan emakume-kopurua handitzen da, eta 3) Elizaren diskurtsoetan gero eta garrantzi gehiago hartzen dute emakumea eta erlijioa lotzen dituzten balioak. Minguezen (2012) arabera, baina, Europako beste herrialde batzuetan ez bezala, ez dago Espainian gaia zorroztasun historikoz jorratzen duen lanik. Hala, jarraian, Minguezen lana hartuko dugu abiapuntu emakume-kongregazionisten ibilbidea aztertzeko.



4.5. Ordena katolikoaren feminizazioa, patriarkatua elikatzeko eta iraunarazteko tresna

Hainbat historialarik eta teologok (Yetano-Laguna, 2000; Intxaustegi, 2017; Minguez, 2012) azaldu duten moduan, Eliza Katolikoaren feminizazioa eta diskurtso-aldaketa zuzenean dago lotuta XIX. mende erdiko kongregazioen boom-arekin. Garai hartan, liberalismoaren mehatxua gainean zuelarik, Elizak jendarte burgesekin elkarlanean, giza ordena mantentzea bermatuko zuen programa handinahi bat eraman zuen aurrera. Programa horren ernamuina emakumezkoen kongregazioak izan ziren; izan ere, emakumeen parte-hartzerik⁴ gabe nekez lortuko zuten liberalismoak hauspotutako sekularizazio-prozesuari aurre egitea. Haatik, diskurtso katolikoaren aldaerei diskurtso liberaleko ka-

4 Ez da ahaztu behar Elizak sustatzen zuen parte-hartze hori beti izan dela subordinatua. Eliza Katolikoaren berrinterpretaketek emakumezkoen jardura bide zehatzen barruan mugatzen zuen, baina nolabaiteko autonomia eskaintzen zien emakume katolikoak.

tegoria diskurtsiboak gehitu zizkieten. Horregatik, bizitza aktiboko emakume-kongregazioen sorrera ezin uler daiteke koordinada horiek gabe. Baina zer dira bizitza aktiboko kongregazioak? Zein ezberdintasun dago klausurazko komentuen eta kongregazio aktiboen artean? Zer zegoen horren aurretik? Ze aukera izan zituzten emakume erlijioetsuek XIX. mende aurretik? Zeintzuk dira aurrekariak?

Emakumezkoen kongregazioen aurrekari historikoetara jotzen badugu, Erdi Aroa aipatu behar dugu ezinbestez. Garai hartan, Germaniako Erromatar Inperio Santuan, emakumeek ezin zuten ikasketarik jaso, eta monasterioak arnagune garrantzitsu bihurtu ziren emakume askorentzat. Alabaina joera hori ez da garai hartakoa bakarrik, gaur egun ere bada emakume-mojarik monasterioak bilatu dituen sistema patriarkaletik eta heteroarauetatik babesteko (Curb & Manahan, 1985). Teologia, liturgia eta literaturaz gain, lege juridiko eta administratiboen gaineko jakintza ere jasotzen zuten. Mojak ziren emakume hauei formakuntza eskaintzen zizkietenak. Aipatu behar da emakumezkoen monasterioak eta klerikoak ia aldi berean sortu zirela. Santa Paula de Roma (347-404) izan zen historiako lehen moja, Belenen emakumezkoen lehen monasterioa sortu zuena, alegia.

Erdi Aroan, baina, bazegoen emakumeen kolektibo bat ez zuenak inolako agintaritarik onartzen (ez zibilik, ez eta elizakorik ere), eta haien espazio eta komuna propioa sortu zuten: emakume horiek *Beguinak* ziren, eta iparraldeko Europan izan zuten protagonismo eta zabalkunde handia. Emakume kristauen elkarte bat zen, gizarte-klase ezberdinetakoak, kontenplatiboak eta aktiboak. Euren bizitza behartsuei, gaixoei, emakumeei, haurrei eta zaharrei laguntzera eskaini zioten. Ez zuten ordena-katolikorik ez eta botorik ere, libre ziren elkarte noiznahi uzteko edota ezkontzeko. Beginak, haien izaera libre eta autonomoagatik mehatxatuak izan ziren; izan ere, Eliza Katolikoaren ustelkeria kritikatzeko eta aireratzen zuten.

Garai hartan eta ondoregoan (Aro Modernoan), Beginen bizi-eredua salbuespena izan zen; izan ere, orduko monasterio gehienak klausurakoak ziren, eta emakume-mojei ez zitzaie uzten bizitza publikoa egiten⁵. Halere, apurka-apurka klausurazko kongregazioek bide eman zieten bizitza aktiboko kongregazioei, hots, kon-

tenplazioa eta bizitza aktiboa uztartzeko emakume-mojen eskubideei (Minguez, 2016). Aldaketa hori, hain zuzen, XIX. mendean heldu zen; erakunde eklesiastikoak emakume-mojekiko zuen mesfidantza apaltzen hasi zen unean. Horren ondotik, Erromak Europako erlijio-institutu nahiz monasterio berri askoren onespen-eskaerak onartu zituen, eta, modu horretara, gizarte-jarduera utzi gabe, erlijio-baldintzen azpian (boto soilak) bizi nahi zuten monasterioak biderkatu egin ziren. Mende bukaeran, klausurazko emakume-mojen eta bizitza aktiboko emakume-kongregazionisten kopurua ia-ia berbera zen.

Estatu espainiarrean, hedapen hori izugarria izan zen. Milaka izan ziren handik eta hemendik etorritako erlijio-emakumeak. Izan zuen irisgarritasuna perspektiban jartzeko, datu bat emango dugu: munduko 3.600 monasterio femeninoetatik, 907 (%25) Espainian daude, eta horietatik lauk⁶ herri berbera hautatu eta partekatu dute haien bizitza kontenplatiboa aurrera eramateko. Herri hori Oñati da.

Horregatik, eta arestian jasotako beste hainbat arrazoiengatik, garrantzitsua iruditzen zaigu gurekin Oñatin bizi izan diren emakume-mojen bizimodua aztertzea eta haien lekukotzak jasotzea, ikuspuntu feministatik. Garrantzitsua da ahotsa ematea emakume horiei; itzaletik argira eramateko kongregazioetan gordetzen diren pentsamenduak, bizimoduak eta lan ikusezinak. Horretan sartu aurretik, baina, Euskal kongregazioen bilakaera xedatzen saiatuko gara labur-labur.

4.6. Emakumezkoen kongregazioen bilakaera Euskal Herrian eta Oñatiko testuingurua

Emakumezkoen kongregazioek XIX. mendean espainiar penintsulan izan zuten zabalkundea eta Euskal Herrian izan zuten bilakaera nahiko parekoa izan zen, baina garapena eta kopurua ez zen berdina izan (Intxaustegi, 2017). Kongregazio zaharrenak Nafarroan aurkitzen dira. Lizarrako Beneditarrak, adibidez, askoz lehenagokoak dira, hots, X. mendekoak; Tudelako *Santa María de la Caridad* kongregazioa 1157. urtekoa; Iruñeako *Santa Engraziako Klarisak* 1228. urtekoa; eta Barañaingo *Agustinak* 1244. urtekoa. Garaiko beste erreinuetan gertatu zen antzera, Nafarroakoan ere ko-

5 Bada historialaririk (Alonso, 2017) esaten duena Erdi Aroko klausurazko mojek orain baino eskubide gehiago zituztela. Monasterio mistoak ere existitzen ziren, eta apaiz zein moja elkarrekin bizi ziren. Hortik datoz, besteak beste, apaiz eta mojen arteko sexu-eskandaluak.

6 Santa Ana, Beneditar Monasterioa, Bidaurretako Monasterioa eta garai bateko Karitateko Alabak.

mentu askoren fundazioa gertatu zen. Horren ondotik, Arabako probintzian aurki daiteke fundazio zahar eta kopuru handiena, besteak beste, Gasteizko *Santa Clara*⁷ eta *Santa Maria de Barriako* komentuek 1247. urte ingurukoak; Añanako *Sanjuanistak* 1302 urte ingurukoak eta, azkenik, 1378ko Ayala familiaren Kexaako San Juan Bataiatzailearen monasterioa aurki daiteke. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, komentu bana aurki daiteke lurralde bakoitzean. Hurrenez hurren, Donostiako *San Bartolome* 1250ekoa eta Lekeitioko Santo Domingo komentua 1368koa.

XVI. mendetik aurrera, ordea, kongregazio berrien fundazioa gertatzen da. Prozesu horrek XVIII. mendera arte irautu zuen. Kopuru aldetik, kongregazio berrien bilakaera ez zen horren oparora eta nabarmena izan. Horren atzean egon daitezkeen arrazoien artean, Nere Jone Intxaustegik (2017), Deustuko Unibertsitateko historialariak, faktore bat aipatzen du: Euskal Herrian egon zen bestelako erlijio-emakume eredia. Garai hartan, emakume erlijioetsuen figura bat zen ugariena: Beatak⁸ edo serorak.

Dokumentazio-faltaren ondorioz, Beaten kongregazioen sortze-data jakitea zaila izan arren, historialariek diote XIII. menderako jadanik beaten edo seroren kongregazioak zeudela lur euskaldunetan. Orduñako San Julian serorategia (beaten kongregazioa) izan zen lehenengotarikoa, baina Maria Jose Arana teologoak beaten 80 kongregazio egon zirela jasotzen du. Eta oparotasun horren erakusle dira, besteak beste, Florencio Arza Alday-ren *Freilas, Seroras y Beatas Vascas: Personalidad y Caracterización* lana; Roslyn M. Frank-en *Euskal Herriko Emakumeen Eginkizun Erlijiosoaren Inguruko Azterketa Diakronikoa: Serora eta bere Laguntzaileak* artikulua; Jose Adriano de Lizarralden *Origenes de la Vida Claustal del Pais Vasco* azterlana; edota Mikel Larrañaga Arregiren bi argitalpenak *Las Seroras en Vasconia durante la Edad Moderna* eta *Seroras Debagoienan (XVI-XVIII)*.

Garaiko hainbat faktoreren ondorioz, ezkongabeko emakume asko zeuden, eta senar gabe bizitzea gaizki ikusita zegoenez, emakume askok eta askok beatekin eta serorekin bat egin zuten bizi-aukera gisa. Izan ere,

moja sartzea ekonomikoki garestiago ateratzen zen, dotea ordaindu behar baitzuten. Gainera, seroren eta beaten bizitza mojena baino askeagoa zen. Gogoan izan behar da eskubide eta ardura gehiago zituztela. Eginkizun eta eskubide horiek bi multzo nagusitan banatzen dira: elizari zegozkion ardurak ditugu, bate-tik, eta parrokiako emakumei begira emakumezko apaiz-lanak egiteko ardura, bestetik. Serorei etxea eta lur-puska bat ematen zizkieten elizaren ondoan. Parrokia hiritarretan, eta baseliza eta haitzuloetan, serorek emakumezko laguntzaile bat edo gehiago izaten zuten, serorak berak ordaintzen zituenak, eta hauek ere eliztarrek eta elizako nagusiek (patroitzak eskubidearen gozamenaren zutenek) emandako onuren zati bat jasotzen zuten. Serorak, normalean, 40 urtetik gorako emakume-alargunak ziren, eta ez ziren klausuran bizi. Seroren eginkizun eta eskubideak aztertuz gero, esan daiteke, oro har, Europako gainerako herrialde katolikoetan gizonetzkoek egin izan dituzten jardueren arduratzen zirela serorak gurean.

Halere, beranduago, XVI. mende inguruan, serorategi batzuk desagertzen hasi ziren, eta beste batzuk ordena-katoliko baten azpian mantendu dira gaur egun arte. Serorategi gehienak Hungriako Santa Isabel ordenakoak ziren "Isabelinak edo Frantziskatarrak". Aipatu behar da, halaber, gaur egun ezagutzen dugun klausurazko kongregazio asko beaten kongregazioak izan zirela lehenago (Intxaustegi, 2017). Trantsizio hori XVI. mendean hasi zen. Serorategiak, oro har, euskal kostaldean izan zuten hedapen handiena, baina Oñatin ere agertzen dira beaten etxeak Erdi Aroko dokumentu historikoetan. Emakumezko kongregazioen boom-a heltzean, kongregazioak biderkatzen hasi ziren. Halere, gutxiak lortu zuten klausurari iskin egitea; izan ere, Vatikanoko kongregazio horiek guztiak mantentzeko baldintza bat jarri zuen: beaten etxeak klausurara igaro behar ziren. Halere, aurretik aipatu dugun legez, XIX. mende erdian, apurka-apurka, klausurazko kongregazioak kongregazio-aktiboak izatera pasatu ziren (Intxaustegi, 2017).

Seroren aztarnarik ere topa daiteke gure herrian. Jarraian, labur-labur bada ere, Oñatikongregazioetako datu batzuk jasoko ditugu.

Santa Ana

Santa Ana komentua jatorria, hain zuzen, Arriarango Joana edo *Juana de Arriaran* Serorari egotzen zaio. Arriarango Joana, berez, Santa Marinako ermitako serora zen, baina 1490. urtean Arantzazuko Santutegiko serora izateko eskaera egin zuen. Izan ere, Aran-

7 Inork ez daki zehazki noizkoa den komentua, baina 1247ko testu historikoetan agertzen da aipatua.

8 Italian *pinzochere* deitzen zitzaizkien eta Herbehereetan eta Frantzia *beginak*. Euskal Herrian Serorak deitu izan zaie. Azpimarratu behar da euskal historialari eta antropologo batzuek beatak eta serorak ezberdintzen dituztela, hots, bi figurak bereizten dituzte. Haien arteko ezberdintasunak, aldiz, ez daude oso garbi, askok eta askok sinonimotzat hartzen baitituzte (Intxaustegi, 2017).



tzazuko kofradiak ermitaren ondoan ostatu bat eraiki zuen, baina ez zegoen beatik bertan bizi nahi zuenik; bakardadea baitzen jaun eta jabe Arantzazun. Joanak baldintza bat jarri zien udalari eta kofradiari bertara bizitzera joateko: etxebizitza bat eta laguntzaile batzuk eskatu zituen. Etxe hori, gaur egun Hospederia Jate-txea dagoen inguruan kokatzen zen. Hiru urte geroago, Don Iñigo de Guevarak komentua eraikitzeke baimena eman zion Arriarango Joanari. 1514. urtean, serora hiltzean, Arantzazun bizi ziren beste lau lekaiameak (Catalina de Asteasu, Marina de Echevarria, Maria Perez de Albisua eta Catalina de Albisua) Oñatira jaitsi ziren komunitatean bizitzeko etxe bila. 1509an Zubikoa erosi zuten (hiru eraikin eta ortua). 1596an klausurazko kongregazioa izatera pasatu zen (*Isabelinak* lehenengoz, eta *Klarisen* ordenakoak ondoren). 1992an, ordea, egun ezagutzen dugun komentura joan ziren. Gaur gaurkoz, Sor Idoia da bertako Abadesa eta 22 moja inguru bizi dira bertan.

Egoitzaren genealogia eta marko geohistorikoaren azterketa Martin Mendizabal Mujikaren (2002) *Las Monjas de Santa Ana de Oñati. Cinco siglos, tres casas una misión* liburuan dago kontsultagai.

Karitateko alabak

Karitateko alabek gure herrian utzitako aztarnak asko dira, baina horietatik guztietatik gaur egun arte iraun duen eraikin garrantzitsuena San Martin Adineko Pertsonen egoitza da. Atzera begiratuta, San Vicente Paul apaiz frantziarrearren topa dezakegu komunitate honen lehen harria; 1617. urtean sortu baitzuen elkarte. Ofizialtasuna, ordea ez zen 1633ra arte heldu. Garai hartan, izen honen azpian eman zen aditzera komunitatea: *San Vicente de Paulen Karitateko Alaben Komunitatea, Behartsuen Zerbitzariak*. Elkarrekin izaera eta jarduera globala zuen, baina Oñatira 1864an heldu ziren. Ospitalean lan egiten hasi ziren (gaur egungo institutua, Urgain), baina hezkuntza ere izan zen haien lan-esparrua. Oro har, haurren eta adinekoen zaintzaz arduratu ziren. Herrira heldutako alabak "Maria Magdalena Benefizientzia Etxean" bizi izan ziren. 1966an, ospitale berri bat eraikitzeke erabakia gailendu zen herrian, ordura arte ospitalea izandako eraikina eraitsi eta beste berri bat eraiki zuten (gaur egungo San Martingo egoitza). Ospitale berria eraiki bitartean, baina, Etxaluzen bizi eta artatu zituzten egoiliarak. Hezkuntza ez zen San Marti-nera lekualdatu eta Santa Marina enparantzara eraman zuten (gaur egun Elkar Hezi). 2017. urtera arte iraun dute Karitateko alabek gure herrian, eta 43 urte luzez arduratu dira San Martingo Adineko Pertsonen egoitzaren kudeaketaz. Iñazio Irizarrek (2017) idatzitako *Karitateko alabei esker onez* liburuak, adibidez, emakume-moja horien ekarpenak biltzen ditu.

Beneditar Monasterioa (Santa Eskolastika)

Oñatiko beneditar monasterioaren historia duela mende bat baino gehiagokoa da. 1904ko uztailaren 13an, zortzi mojak osatutako lehen taldea iritsi zen herrira, eta Ortiz de Zarate Etxean (Maiatzaren 1 enparantzan kokatua) alokairuan bizi izan ziren. Frantziatik kanporatutako emakumeak ziren horiek; izan ere, iraultza liberalak haien herrialdean ziurgabetasun asko sortu zuen. Erbesteratuak eta baztertuak izanaren minak berehala arindu zitzaizkien euren hezkuntza-bokazioari esker. 1925ean, bizi ziren etxea salgai jarri eta erosketari aurre egiteke ezintasunaren aurrean, alde egiteke aukera ere aztertu zuten, baina herriak diru nahikoa lortu zuen haien egoera konpontzeko eta egungo eraikinaren he-




galetako bat eraikitzeko. 1926ko abuztuaren 10ean, *San Lorentzoko jaixetan* inauguratu zen. Gaur egun, Elkar Hezi Kristau Eskola da emakume-moja horien ekimenaren fruitua. Gaur gaurkoz, Sor Maria Jesus da bertako Ama Nagusia eta hamaika moja-aktibo daude monasterioan, baina 80 inguru izatera ere heldu dira.

Bidaurretako Monasterioa (Trinitate Txit Santua)

Juan Lopez de Lazarragak⁹ eta Juana de Ganboak, Oñatiko nobleziako familiak, Klarisen komentua sortu zuten Oñatin 1510. urtean; Gipuzkoako lehena izan zen. Familia honek eta Oñatiko kondeak harreman gatazkatsuak izan zituzten. Lazarragak Bidaurretako monasterioa eraiki nahi zuen bertan hilobiratua izateko, baina Iñigo de Guevarak traba dezente jarri zizkion. Nobleziako fa-

milia Bidaurretako monasterioan hilobiratu zutela esan ohi da, baina ez dago dokumentu zehatzik hori jasotzen duenik. Bai, ordea, monasterioko etxaldean hilobiratu zutela. Monasterioa eraiki bitartean, mojak Olakua-ko dorre gotikoan bizitzen egon ziren. Bestalde, esan beharra dago komentu hau giltzarria izan zela mojak leku batetik bestera mugitzeko orduan. Lazarragak eta Ganboak ondasun guztiak mojei eta haien ordenari utzi zizkieten. Gaur egun (2023.urtea), Maria Jesus Odriozola (zestoarra) da bertako abadesa. Hamazazpi moja aktibo ditu monasterioak, baina nobizien garaietan 300 emakume biltzera ere heldu zen monasterioa. Egoitzaren genealogia eta marko geohistorikoaren azterketa, Lanzagorta eta Moleroren (1999) *Los Lazarraga y el convento de Bidaurreta (siglos XVI-XVIII): Un Linaje en la Historia Oñate* liburuan dago.



⁹ Monasterioaren fundatzailea eta mezenasa izateaz gain, Errege Katolikoaren kontularia eta idazkaria izan zen.



5. EMAITZEN (DES)KONPOSAKETA

5.1. Mojen izaera

5.1.1. Kristautasuna garaiko jendarte frankistaren gako soziologikoa

Oñatiko mojen jatorria aztertuta, ikusi dugu, moja sartu aurretik, emakume guztiek zutela baserri-giroko etorburu bat. Inguru hori, gainera, industriarik gabekoa zen, eta erlijioz bustirik zegoela ere gogoratzen dute gehienek: *"kristautasuna etxean eta kalean oso presente genuen; etxean Loiola eta Segura Irratia jarraitzen genuen; esnatzetik errezatzen genuen; igandetan ere mezetara txin-txo eta behartuta joaten ginen"* (Parte hartzailea 1.). *"Nire familiar latinez eta euskaraz egiten genuen errezoa; konbibentziak (elkarbitzita), maiatzeko loreak, dizienbrian bederatzizurrenak, Augustinotako padre Elias-ekin errosarixua errezaittea ere joaten ginen askotan"* (Parte hartzailea 4). Beste moja batek dio horrek guztiak harremana duela garaturik eta garatze bidean dauden eskualde eta herrialdeetako errealitatearekin, jendearen alfabetatzea garatu ahala, jendearen pentsamendua ere askatuz joan zelako. Alfabetatu aurretik, erlijioak konfiguratzeko baitzuen pertsona:

Afrika edo Indian pasatu dena, hemen pasatu da aurretik. Erdi Aroan gertatu zen moduan, erlijioa boterea zen. Kristautasunaren doktrina eta diskurtsoa beldurrean oinarritzen ziren, Jainkoaz zabalitzen zuten irudia bortitza zen, Jainkoa zigortzailea zen. Disparate asko egon dira kristautasunaren zabalkuntzan, eta askok diskurtso tremendista horietan ikusi zuten ez zela barrenetik sortutako esperientzia erlijioitsu bat, eta mezetara joateari utzi



zioten. Gerora, Jainkoa guri begira ez dabilela, eta infernura ez gaituela eramango ulertzen hasi zen (Parte hartzailea 1).

Herri batetik bestera ere gauzak asko aldatzen zirela aipatzen dute. Adibidez, Tolosatik heldutako moja batek dio aldaketa esanguratsua nabaritu zuela Oñatiko Santa Ana komentura sartu zenean: *"Oñatin oso-oso giro erlijioitsu zegoen"* (Parte hartzailea 1). Horrekin batera aipatu behar da, mojen familiak, oro har, oso elizkoiak zirela, bereziki 62ko belaunaldi aurrekoak; izan ere, 1962ko Vatikanoko II. Kontzilioarekin gauzak apurka-apurka aldatzen hasi ziren, hau da, Jainkoaren irudia eta Elizak hedatzen zituen mezuak lasaitzen hasi ziren. Horren aurretik, baina, erlijioa tresna soziologiko garrantzitsua izan zen jendarteari forma emateko eta haren doktrina azpian prestatzeko.

Mojek diote giro politikoak ere eragin zuzena izan zuela haiengan. 1965etik aurrera, Arantzazu edo Donostiako seminarioan, adibidez, *"baserriko mutil koskor izatetik kulturaren jantziak izatera pasatu ziren hainbat gazte. Jainkoari buruzko ezagutza eta kultura jaso zuten, besteak beste: Ebanjelioa, Eliza edota Jainkoa"* (Parte hartzailea 5). *"Horiek guztiak aztertzen ari zirelarik eta frankismoaren*

eraginez, konturatu ziren euskal balioak eta euskal kultura ez zela errespetatzen. ETA, adibidez, modu horretan hasi zen antolatzen. Hizkuntza eta kultura euskalduna politika-rekin nahastu da denbora luzez; garaiko politikak ere gauza asko astindu zituen” (Parte hartzailea 3).

Mojen kasu zehatzera etorrira, guztiek diote haien ikasketak gogo-jardunean eta bizikidetzan oinarritu zirela. Gogo-jardunak bost edo zortzi egunez egiten ziren to-paketa eta gogoeta erlijioetsuak dira. Ebanjelioa, Bizitza erlijioetsua, ezkongabeko eta ezkon bizitza zer zen azaltzen zieten. Erretiro bat bezalakoa zen. Euskal Herrian, kristau gogoetarako prestakuntza hau oso ohikoa zen garai hartan, batez ere sendotza¹⁰ egin behar zuten gazteen artean. Prestakuntza-saio hauek normalean apaizen gidaritzapean egiten ziren, eta testuetako pasarteetan inguruan hitz egin eta eztabaidatzen zuten: *“Dena gaztelania hutsean ikasten genuen (eskola nazionalen), goiz eta arratsaldeko txandetan. Kristau doktrina buruz ikasten genuen jaunartzerako”* (Parte hartzailea 1). Hasiera batean, prestakuntza jasotzen zuten ikasleak neska eta mutil taldeetan bereizten zituzten, baina gero talde mistoak sortu ziren.


1962.urtean, Aita Santuak kontzilioa zabaldu zuen. Mojen arabera, ordura arteko bizimodua oso fededuna zen. Gaur egunera ekarrita, mojek diote Eliza barruan dagoen espektroa ere oso bestelakoa dela. Eskumako alderdi politikoen kristautasunaren defentsa edo haien burua erlijioetsutat definitzen badute ere, mojak ez dira ageri adeitsu ikuspegi horrekin. Guztiz baztertzen dute *“lehengo egiteko modu hori, ordeno y mando. Alderdi horiek ez dira koherenteak haien jokabidearekin eta haien esanekin, eta horrek ez dio batere laguntzen Elizari. Eliza barruan bestelako posturak ere badaude”* (Parte hartzailea 3). Kontzilioa onartu zenean, ordea, apurka-apurka jendarteak aldatzen joan zen nahiz eta oraindik ere erlijio doktrina oso presente egon. Beraz, beranduago jaiotakoekin bizitza ere kristau doktrinaren bueltan oinarritu da. Elkarrizketatuek aipatzen dute erlijioa bizitzeko moduak eta herri-giroak haien bizi-hautuetan eragin zuzena izan zuela. Giro horrek sentsibilitate berezi bat piztu zien erlijioetsuek egiten zituzten ekintzekiko.

5.1.2. Moja-hautuaren atzean dauden arrazoiak

Gezurra badirudi ere, moja batzuek aitortu dute gaztaroan mojetatik ihesi ibili zirela. Batzuei kostatu egin zitzaizkien erabakia hartzea, eta beste batzuei ez horren-

beste. Batzuk atzerrira ere joan ziren lan egitera, baina erbesteko giroa atsegin ez, eta barruko deia berreskuratzeko herriratu ziren. Beste batzuk, ordea, kanpora joan ziren ikastera, fabrikara sartzeko ere ez zutelako nahi, eta ikasketak amaitu ondoren sartu ziren komentuan. Hasieran, komentukoek laguntzen zieten, eta gero bertan gelditu ziren moja. Garai hartan ezkonbizitza, soltera edo komentuan sartzeko aukera sarrienak. Beste batzuk aipatzen dute familia barruan ere erreferenteak zituztela; alegia, askok ahizpa, osaba edo izebaren bat zuten moja, fraile edo misiolari-lanak egiten ari zirenak. Guztiak bat datoz esatean Elizak sustatzen zituen elkartasun-ekintzekin identifikatzen zirela, hau da, besteei laguntzeko jarduerekin.

Moja gehienek komentuan sartzeko erabakia bakardadean hartu zuten, inork inposatu gabe. Hor hasten dira norbere galdeketa eta bilaketa; norbere ideiak lotzen eta askatzen, hots, non lagun diezaiek gehien pertsonen? Galdera horri erantzutean ikusten zuten moja izanda, orazioaren bitartez besteei laguntzeko aukerak biderkatzen zitzaizkiela, eta horrek gidatzen zuen haien bizi-ibilbidea. Behin komentuan sartzean, batzuek gogoratzen dute nola erantzten zitzaizkien jaiotzetik zuten izena, hau da, *nia* ahaztu eta identitate berri bat atxikirik



¹⁰ Sendotza edo konfirmazioa kristau-erlijioan, Bataioko grazia osatu eta sendotzen duen sakramentua da, Espiritu Santua eta bere dohain guztiak komunikatuz.

sartzen ziren. Zure izenari uko egitea zen ohitura, nahiz eta 68ko kontzilioa helduan, gisa horretako arauak arbuiatzen hasi ziren. Ordutik hona, Oñatiko mojak euren jaiotzeko izenarekin identifikatzen dira.

Alde bateko eta besteko komentuko giroak oso beste-lakoak dira. Komentu-aldaketa eskatu duen mojarik ere bada Oñatin: *“Giro itoak eta beldurak sartu nahiez bizi nintzen, eta komentu-aldaketa eskatu nuen. Pauso batzuk ezkutuan egin behar izan nituen; izan ere, gaur egun oso giro itxiak dituzten kongregazioak ere egon badaude”* (Parte hartzailea 6). Giro itxi horiek botere-harreman guztiz piramidalak bermatzen dituzten komentuetan daudela azaltzen du moja honek. Guk egindako elkarrizketetan ere giro hori bereiztera heldu gara une batzuetan. Santa Anak duen ordena katoliko berbera izanda ere, Bidaurretako monasterioan mantentzen den itxitasuna eta zurruntasuna esanguratsuagoa da aztertutako beste bi komentuekin alderatuta. Honekin ez dugu esan nahi Bidaurretako monasterioan giro itoan bizi direnik, baina bai kanpo eraginei gehiago ixten direla, hots, iragazgaitzagoak direla. Hain zuzen, kanpoko eraginei buruz hitzegitean, mojek diote gaur egungo erritmoek eta, bereziki, bizkortasunak saihestu egiten duela gogoetarako tartek hartzea. Hartzen diren erabakiak eta egiten diren ekintzak erreflexu egoki baten ondotik egin behar direla defendatzen dute baina, tamalez, jendarteak hori ez duela egiten azaltzen dute. Komentuak erritmo horietatik ere ez daudela salbu aipatu dute. Horretan jardutea, autoezagutza aztertzea eta bertan gertatzen diren dinamikak landu behar direla diote, *“ahulgune eta indargune horien kontzientzia hartu behar da, eta horretarako da garrantzitsua guk daramagun erlijio-bizitza”* (Parte hartzailea 3).

Mojei zorientsu diren galdetzean, hauxe erantzuna: *“erlatibo da, pertsona guztiak bezala, bai eta ez, ez gara diferenteak”* (Parte hartzailea 1).

5.1.3. Jendartea kapitalismoaren esklabo, baita mojak ere

Mojekin premisa bat partekatzen dugula ere argi geratu da: kapitalismoak zabaltzen eta hedatzen dituen balioak esklabo bihurtzen gaituztela. Balio horiek guztiz kontrajarriak daude mojen botoekin. Bide horretan, moja-hautua interpreta daiteke kapitalismoaren balio horiei iskin egiteko modu bat bezala, ez baitira bizi balio horietan bete-betean sartuta, baina moja batek aipatzen duen legez: *“guri ere erlijio-estatu batek arautzen gaitu: estamos metidas en el mismo fango. La iglesia tiene un reto: vives en autenticidad, fiel a tus principios”* (Parte hartzailea 1). Argi dagoena da, ez dagoela bizi-proiektu



perfekturik, neurri txikiagoan bada ere, kapitalismoak hedatzen dituen balioak komentuan ere sartzen direla egiaztatu dugu, nahiz eta gauzak dezente hobetu diren: *“garai batean moja guztioi nahi gintuzten uniformatuak, denok berdinak, baina poliki-poliki beste bide bat eraiki dugu eliza barruan, dibertsitatean oinarrituta eta konparazioa arbuiatuta* (Parte hartzailea 4).

Mojen bizi-bidea komunitatea da, eta gaude bizimodu horrek baduela kapitalismoari iskin egiteko tresnarik. Komunitateak zer diren galdetuta, mojek diote zorientsu izateko elkarri laguntzen dioten pertsonen arteko elkarbizitza dela. Haatik, elkarrekiko zaintza azpimarratzen dute komunitateko ezaugarri nagusi gisa. Ideia horrek bat egingo luke feminismotik egiten diren zaintza-aldarriekin, indibidualismoa arbuiatu eta denon bizitzak erdigunean jartzea eskatzen baita. Feminismoak etengabe eskatu du zaintza erantzukizun sozial bihurtzea eta guztiontzako eskubide kolektibo gisa bermatzea (Olaso, 2023). Eskubide horrek, gainera, ez luke izan behar une zehatz batzuetan gauzatzekoa, baizik eta bizi osoan

zehir, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaini eta jasotzeko bermea litzateke feminismitik egiten den proposamena: zaintza sistema publiko-komunitarioaren proposamena aldarrikatzen da Bizitzak Erdigunean, Euskal Herriko mugimenduko Koordinadoratik. Hots, galtzen ari den ikuspegi komunitarioa berreskuratu eta gure arteko harremanak birpentsatzeko beharra ikusten da. Noski, mojek osatutako komunitatea ez da irekia, herria den bezalaxe. Komunitate itxia da, emakumez osatua eta familia eredu hegemonikotik aldentzen da. Herriarekin hartu-emanen bizi arren, barrura begira, haien balioetan tinko bizi dira mojen komunitateak, hain zuzen, herriarentzat eredu izan nahi dutelako.

Komunitatean bizitzeak eta elkar zaintza oinarri izateak ez du esan nahi erabakiak eta haien arteko harremanak beti zoragarriak direnik. Elkarrizketatutako mojek dioten bezalaxe *“gure komunitatean ere desadostasunak egoten dira, bilera batzuk beste batzuk baino animosoa-goak izaten dira”* (Parte hartzailea 6). Erabakiak nola hartzen dituzten galdetzean, mojek diote batzarrak egiten dituztela aldiro-aldiro komunitateko-lanak banatzeko eta arauak finkatzeko. Zerbait hondatu denean eta erosteko beharra dagoenean, zentzua erabiltzen dutela aipatzen dute, gertu eta komertzio lokalak lehenesten dituztela diote. Halere, pobrezia botoari jarraiki, kontsumismoa baztertzen dutela ere argitzen dute.

5.1.4. Zaintza-eredu egokiena eta komentuen etorkizuna

Mojei zaintza-eredu egokienaz galdetzean, elkarrizketatuek diote haiek elkarri zaintzeko gai diren heinean, haiek hartuko dituztela lanok beregain, baina *“helduko da une bat non gure zaintza-lanak besterenganatu behariko ditugun”* (Parte hartzailea 1).

Une bat iritsiko da ezin izango duguna gure burua zaindu eta komentua itxi beharko dugu. Tolosan eta Dulantzín, adibidez, ez daude nahikoa moja komentu hori sostengatzeko. Legeak dio moja-kopuru minimo bat egon behar dela, eta haiek ez dute betetzen. Arau horiek Erromatik datoz. Santa Anan, momentuz, ez dugu kanpotik mojak hartzeko erabakirik mahai gainean (Parte hartzailea 7).

Hain zuzen, atzerritik etorritako mojak egoitzan hartzeko aukeraz hitz eginda, Santa Anako mojak, adibidez, ez dute egokiro ikusten. Kultura-talka handiegiak ikusten dizkiete. Moja batzuek kasu batzuk ezagutu dituzte zeinetan kanpotik etorritako mojak klausurako komentu batean sartu izan dituzten, eta *“agonia handia bizi izan dute”* (Parte hartzailea 10). Mojei, oro har, somatzen



zaie haien komunitatea eralda dezakeen edozein elementurekiko mesfidati. Bidaurretakoak, aldiz, atzerritik heldutako mojak hartzera ohituago daude. Hori izango litzateke mojen artean aurkitu dugun talketako bat: kanpotik mojak ekarri bai ala ez. Egoitzan hartzearen aldekoek diote komentu barruko eguneroko sufrimendua dela ikustea ez zarela heltzen gauza guztietara *“moja batek hau duela edo bestea behar duela; polito dauden mojak aldi beran gaixotuz gero, panorama eskasa izango genuke, eta horrek sufriarazi egingo gintuen, ardura gehiegi hartzea gure gain”* (Parte hartzailea 6). Horri lotuta honako ideia hau azpimarratzen du beste moja batek:

Falta valentía para cambiar las estructuras eta zaintza egokiak egoteko eskaerak egiteko: komentu bakoitzean erizain bat, eta moja guztiak toki berean egon eta laguntza jasotzeko planteamendua. Koordinatzaile orokorra ere kanpokoan izan behar luke, baina aldi berean mojek bisitak jasotzeko aukera zabaltzea. Eta nire ustez konfederazioa oraindik ez da heldu puntu horretara (Parte hartzailea 3).

Komentuen eta bizitza kontenplatiboaren etorkizunaz galdetzean, mojek diote gaur egun komentuek ez dizkietela erantzuten gaur egungo gizartearen beharrei. Mojen bizi-estiloa ez dator bat jendarteak eskatzen duenarekin, baina moja batek dio gaurkotasan handia duela, ordea:

Bizitza kontenplatiboa benetan biziko bagendun, bizi estilo honek izugarritzko gaurkotasuna izango luke jendartean. Estrukturak aldatu beharko lirake emakume gehiago bizitza kontenplatibo horretara hurbiltzeko. Bizitza kontenplatibo hori nola eta tradizioaren arteko trantsizioa nola eman eztabaidatu beharko litzateke. Sistema hau tradizioan oinarritzen da. Bi aukera daude, tradizioarekin hautsi eta kito, edota aztertzea nola gauzatu behar den trantsizioa (Parte hartzailea 3)

Mojak kontziente dira gaur egungo jendartean fedek ez duela toki gehiegirik, bereziki, gazteen artean. Momentzat ere harrigarria da, halaber, ikustea mindfulness, yoga eta gisa horretako ariketa espiritualak gaurkotasunezko jarduerak izatea, eta haiek jorratzen duten barne begirada hori arbuizatzea erlijio kontuengatik:

“fedek ez du xarmarik, ez du jendea erakartzen, eta kontu hau espiritualitate kontu bat da. Espiritualitatea, hain zuzen, barruan sentitzen den zerbait da, eta ez badago barne begirada hori, ez dago ezer. El encontrarte con el sentido de la vida; con la frustración de la vida, de eso se trata” (Parte hartzailea 1).

Zer falta den galdetzean, gehienek haxe azaltzen dute: pertsonak hiru dimentsio baditu (biologikoa, kulturala eta espiritual), gaur egun, ez da batere lantzen dimentsio espiritual. Alegia, giza-oinarri gehiago duen bide-orri bat planteatzen dute mojek. Bide-orri hori bat dator feminismitik egiten diren aldarriekin eta zaintza komunitarioarekin.

Monastegiko bizitzaren dekadentziaz eztabaidatzean, mojek diote haien bizi-estiloaz gain, dekadentzian sartu diren beste elementu batzuk ere egon badaudela jendartean, besteak beste, ohiko familia ereduak eta bizi-estiloak. Faktore demografikoez gain, alde bateko eta besteko bizimoduak nagusitu dira han eta hemen: ezkongabe gelditzeko aukera, guraso ez izateko aukera, ikasketak atzerrian egiteko aukera, atzerrira laguntzera joateko aukera, misioak eta abar. Moja hauen gazte-




raiarekin alderatuta, gaur egun, bizitza modu askotara planteatzeko aukera dagoela azpimarratzen dute. Horrek guztiak, garai bateko sexu-genero asimetriarekin egiten du talka; hau da, gizonezkoek lehenago askoz aukera gehiago zituzten emakumezkoek baino: *“emakumeen aukerak izugarri aldatu dira orain: autonomia izateko, lana topatzeko, bizimodua egiteko.... Hori guztia emakumezkoen bokazio-faltan ere nabaritzen da”* (Parte hartzailea 4).

5.1.5. Ohorezko dominak, apaizak vs mojak

Elkarrizketatuekin eztabaidatutako beste gai bat izan da historikoki apaizek eta mojek herrian izan duten rola eta funtzioa. Gure hipotesi eta zalantzetatik abiatuta, Arantzazuko fraileek egindako lan mota eta izan duten errekonozimendua –mojenarekin alderatuta– handiagoa izan ote den jakitea izan da. Mojekin hitz egitean, ez dugu erantzun zuzenik jaso hori horrela dela egiaztatzeko, baina haien gogoetak eta teoria feministak gurutzatuta ondorioztatu dugu, kasu honetan ere, patriarkatuak hauspotutako sexu-genero sistemak eragin zuzena izan duela mojek eta apaizek gauzatutako lan-tipologietan.

Arantzazuko fraileek historikoki izan duten rola ia gehienetan egon da lotuta jarduera politiko-kulturalei, hots, aktore kultural aktiboak izan dira: euskararen zaindaria, euskal kulturaren zaindaria eta Arantzazuko ondarearen zaindaria. Fraileek egindako lana, halaber, ezaguna da herritar askoren partetik, Oñatiko mojena, aldiz, ezezagunagoa da. Hori gertatzen da, hein batean, Oñatiko mojak zaintza-lanez arduratu direlako, edota hezkuntzara dedikatu arren (Beneditarren kasua), lan erreproduktibora ere dedikatu direlako. Finean, mojen lana ikusezina izan da urteetan, eta fraileek esparru publiko mojek baino gehiago ustiatu dute. Lan intelektuala ez zaie aitortzen mojei, aldiz, frantziskotarrei bai: boz-



gorailua izan dutelako hori hedatzeko. Elkarrizketatuek, ordea, ez dute irakurketa hau egiten. Fraileetatik jasotako laguntza handia dela esan dute, eta haiek egindako lana goraiatu ere egiten dute. Mojek Frantziskotarren edota Agustinoen lanei buruz duten iritzia, hein batean, mojek gauzatu eta errespetatu behar dituzten botoekin lerratzen denik ere pentsa daiteke. Izan ere, mojek emandako iritziarekin onartu eta justifikatu egiten dute, nolabait, Elizaren baitan gauzatutako sexuen arabera lanen banaketa. Jendardean bezalaxe, Elizako gizonezko eta emakumezkoen lanari balio eta aitortza ezberdina egiten zaie.



Errekonozimendu asimétriko horri loturik aurki geneza-keen adibide praktikoetako bat, hain zuzen, 2023ko iraila eta azaroa bitartean estreinatutako ikus-entzunezko bat da: *Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri 1* dokumentala. Pello Sarasua zuzendariaren xedea izan da Frantziskotarren ekarpenak biltzea eta baliostea. Horretarako, Arantzazuko fraideez gain, esparru kultural, akademiko eta intelektualeko pertsonaiak elkarrizketatzen dira: Lorea Agirre, Izaskun Andonegi, Miguel Ángel Alonso del Val, Jose Ramon Beloki, Miren Elgarresta, Xabier Euzkitze, Marije Goikoetxea, Alazne Guridi eta Jon Sarasua. Gisa honetako lanak garrantzitsuak direla ez dugu ukatuko, baina teoria feministei jarraiki esan genezake,

beste behin ere, gizon apaizen lanek etxetik kanpo, inimitatetik kanpo, komunitatetik haragoko errekonozimendua jasotzen dutela, eta ez edonola, gainera. Mojen kasuan ez da hori sarritan gertatzen, eta gertatzen denean, balioespen hori, normalean, ez da esparru akademiko, kultural edo intelektualetik egiten. Dokumental honek eta antzeko piezek esparru berdintsuan (arloan soziala, kulturala eta espirituala) lan egiten duten subjektuen errekonozimenduaren asimetria areagotu, genero-rolen estereotipoak nabarmendu, eta Oñatiko emakume-mojen lana ezkutarako dezake. Finean, espiritualitatea, herrigintza, artea, euskara, kultura, erlijioa eta jakintza, beste behin ere, gizonei aitortua.

5.1.6. Marra moreak eta marra gorriak komentuetan

Lan honen helburuetako bat mojen iruditeria (des)erakitzea izan da. Hau da, mojen inguruan zabaldu den irudia eta asimilatu ditugun estereotipoak errealitatearekin bat datozen ala ez egiaztatzea. Hori lortzeko bide bat, hain zuzen, haien izaeraz galdetzea da. Bide horretan, gainera, gaur egun jendartean dauden beselako identitateen inguruan zein iritzi duten ere jakin nahi izan dugu, besteak beste, LGTBIQA+ kolektiboan barnebildurik dauden pertsonen buruz duten ikuspuntua. Horrekin batera, Eliza zuzenean interpelatzen duen eta puri-purian dagoen beste gai bat ere jarri genuen mahai gainean: haurren sexu-abusuak Elizan.

Horrekin batera, kutxatik kanpo pentsatzea ere bazen ikerketa honen beste helburuetako bat; alegia, mojekin gai arantzatsuen inguruan hitz egitea erantzun zuzenak edo logikoak alde batera utzirik. Aita Santuak LGTBIQA+ kolektiboaren alde egindako adierazpenak ezagunak zaizkie Oñatiko moiei. Moja batzuk betaurreko moreak jantzirik dituztela egiaztatu dugu, beste batzuei, ordea, zailagoa egiten zaie aintzat hartzea kolektibo horretako pertsonen eskubideak. Jakitun dira kolektibo horrek han eta hemen pairatzen duen diskriminazioaz eta bortizkeriaz. Jakitun dira, halaber, bizi-proiektuak gauzatzeko hamaika modu daudela eskura, baina jendartean bezalaxe, mojen artean belaunaldien arteko amildegi bat ere hauteman dugu: *"tenemos aprendido que esas relaciones son de pecado, que son pecado"* (Parte hartzailea 5); *"Munillak zarata asko atera du gai hauen inguruan, eta errespetatu egiten da"* (Parte hartzailea 6). *"Estamos jugando con la fe, y con la fe no se puede jugar. Beti ari gara esaten persona horiek fedea galtzen dutela, baina zer ari gara esaten! Fedea ez dago bakarrik Elizan!"* (Parte hartzailea 1). *"Jesus da lehen feminista, nola ez gara izango gu feministak!"* (Parte hartzailea 9). *"Bibliak ere baditu gai horien inguruko pasarterik, errespetatu egin behar dira.*

Jesusek diskriminatuei ematen zien laguntza, todos como hijos de Dios" (Parte hartzailea 7).

Adierazpen horiek jasotzeaz gain, beste moja batzuek haien esperientzia pertsonaletik hitz egin zuten: *"Nik familian baditut iloba homosexualak eta haurrak izan dituztenak, nik ez dut inongo bekaturik ikusten familia horretan, ez dute bekaturik egin. Berdin-berdin maitatu behar zaie"* (Parte hartzailea 6). Elkarrizketatutako beste moja bat ere pertsona homosexualen aldarriari atxikitzen zen, baina heteronormatibitatearen zantzurik ere aurkitu genuen bere adierazpenetan: *"Nik badut lagun bat homosexuala dena, guztiz normala, ikasketak ere baditu, familian onartua etab.; ez da afeminatua edo kaskarin horietako bat"* (Parte hartzailea 8).

Teoriatik praktikara salto egiteko, honako egoera planteatu genien komentuetako moja batzuei: demagun emakume lesbiana batek Santa Anako komentuko atea jotzen duela zuekin bat egiteko. Zer gertatuko litzateke?





Moja batzuek argi zuten ez zela ezer gertatuko, ez ziote-la sexu-orientazioaz galdetuko pertsona horri, haiei ere ez zietelako galdera hori egin klaratar bihurtu zirenean. Beste batzuek, ordea, komunitatean planteamendu bat egin beharko zela diote, hots, eztabaidatu egin beharko zela. Honatx Santa Anako komentuan esandakoak, hurrenez hurren:

- *Yo no aceptaría. Homosexualak ez. Menudo problemón. Botoak nola egingo lituzke pertsona horrek?* (Parte hartzailea 8)
- *Kastitate botoa berdin-berdin egingo luke pertsona horrek* (Parte hartzailea 1).
- *Egia esan, aldatu bada, hau da, konbertsio bat egin badu, Jainkoak barkatu egiten du. Beraz, orduan bai onartuko genuke* (Parte hartzailea 8).
- *Baina zein pekatu egin du horrek? Non dago pekatua? Pertsona hori gu bezala normala da, bere formakuntza*

jaso beharko luke eta abar, baina onartua izan beharko luke. Aurrera egin nahi badu, aurrera egingo du (Parte hartzailea 3).

- *Klausurako mojej hori galdetzen? Non bizi zarete zuek? Ene bada!* (Parte hartzailea 8).

Bistan da, moja batzuek erresistentzia zein kontrakotasuna agertzen dutela LGBTIQ+ pertsonen eskubideei buruz galdetzean. Erresistentzia handiena Bidaurretako mojetan atzeman dugu; Santa Ana edo Beneditarretan, aldiz, ikuspegi irekiago bat egiaztatu dugu. Beneditar monasterioan gisa horretako eztabaidak gairidurik dituztela ere antzeman zitekeen; beharbada, hezkuntza-sisteman murgildurik egon direlako hastapenetatik. Haatik, komentu guztietako mojek ospatzen dute mende mende emakumeek lortutako eskubideak eta parte hartzea erabakigunetan. Poztu egiten dira ikustean emakumeak gaur egun okupatzen duen espazioa geroz eta anitzagoa dela. Bidaurretakoak, baina, baldintza bat eransten dio emakumearen parte hartze eta okupazio horri: *“emakumiak bere papela iñ bihar dau. Gizakumia da familixan errespeto gehixena euki bixakona. Holaxe kontaitten dau ebanjelixuak: Ama birjinak Jesus euki eben, baina San Jose jarri eben kustodio. Gaietik egoteko anbi-ziñua dau, baina hori ezta ona”* (Parte hartzailea 11).

Ildo beretik, emakume-mojak meza emateko prest ote dauden galdetzean, alde bateko eta besteko iritziak bildu ditugu. Bidaurretan aukera hori zuzenean baztertzen dute, soilik kasu batzuetan onetsiko lukete: *“apai-zen faltia badau, Eliziak esaten dauena in biharko da”* (Parte hartzailea 11). Beste komentuetan baiezkoa jaso dugu, hots, emakume-mojak soberan prestatuak daudela diote. Kasu batzuetan, barne mailan bada ere, gisa horretako praktikak ere egin izan dituztela esan dute, bereziki, COVID-19ak eragindako pandemia eta osasun-neurriek jarritako mugen ondorioz, konbentuan apai-ze ematen zuten meza beraiek emanez.

Hautsak arrotzen dituen beste gai bat ere jarri genuen komentuetako mahai gainetan: sexu-abusuak Elizan. El-karrizketatu guztiek egiten dute bat auzi honetan. Lotsa izugarria sentitzen dute gisa horretako kasuak entzuten dituztenean: *“Nola da posible horrenbeste obispo eta kardenalek hori egitea? Sinesgaitza da!”* (Parte hartzailea 3). Beste moja batek dio beharrezkoa dela urrats bat ematea *“onartzeko biktimari eginiko mina. Onartzea beharrezkoa da biktimak bakea lortzeko, bizipoza berreskuratzeko”* (Parte hartzailea 11).

Santa Anako mojak sexu-abusuen atzean egon daitezkeen faktoreak xedatzen ere jardun zuten. Batzuek diote garai batean zegoen heziketa afektibo-sexuala

hutsaren hurrengoia zela, iritziz gazteegi sartzen zirela mutilak apaiz etxeetan:

“Gu 21 urterekin sartzen ginen moja, eta mutiko horiek oso gazterik sartzen ziren apaiz, 10, 11 eta 12 urte. Guk bagenekin mutil batekin hartu-emanaz izatearekin zein motatako bizimodua izan zezakezun. Baina mutil koskor horiek ez dute izan hori. Gu txikiak gine-la, ez da egon komunikaziorik eta are gutxiago sexuaren kontu hauekin. Norberak asmatu behar zuen zergatik aldatu zitzaion gorputza, eta zergatik etortzen zitzaion hilekoa eta abar. Eta gaur egun ere oso gutxi hitz egiten da gauza horiei guztiei buruz. Eta mutil koskor horiek oso gazterik joan ziren seminaria, inor gabe, ez aita ez amarik ez ezer. Bizi-proiektua murriztu zitzaie mutil horiei. Abusu horiek egin dituztenak gizakumeak dira guztiak, zein kuriozosa den hori!” (Parte hartzailea 3).

Moja Beneditarrei gaiaz galdetuta eta, bereziki, hezkuntzan izan duten esperientziari dagokionean, diote ez dutela sekula tankerako arazorik izan edo ezagutu. Are, diote Beneditarretako haurrek sexualitatean jasotako formakuntza beti izan dela afera garrantzitsua haien-tzat: *“mutilen masturbazioa zen problema bat gurean eta guk ez genekien nola heldu. Horregatik jo genuen profesionalengana gaia nola landu ikasteko”* (Parte hartzailea 9).

Adierazpen anitz hauek entzunda, badirudi, eliz-kideek egikaritu dituzten delitu hauek justifikaturik daudela. Eta hori da, hain zuzen, instituzio eklesiastikoan hedaturik dagoen praktika eta irudipen bat: hau da, gisa honetako delituak Eliza barruan gertatzen direnean –modu sistemakoan–, kideek ez dituztela salatzen eta tinko kondenatzen, beti egongo da salbuespena dela pentsatzeko joera edota justifikatzen duen arrazoi bat. Ideia hori, bide batez, parekagarria da egungo jendarteak indarkeria matxistari buruz duen jarrerarekin. Oraindik ere emakumearen aurkako, LGTBIQA+ kolektiboaren eta haur eta nerabeen kontrako indarkeriak gutxies-teko edo zuritzeko jarrerak eta jokamoldeak sistemati-koak dira.

Elizaren baitako sexu-abusuetara ekarrita, jarrera eta praktika horiek talka egiten dute kontzientzia feminis-tarekin. Hau da, Elizak sexu-abusuen ikerketa oztopa-tzeak, abusu-kasuak salbuespen gisa tratatzea, abusa-tzaileak justifikatzea, botere-sarea erabiltzea elkarri babesteko eta, oro har, delitu horiek bere gain ez har-tzea.

Nabarmenezko da, halaber, haurren aurkako biolen-tzia-salaketak, tamalez, gora doazela gaur egun, eta sala-keta horiek guztiak ezin zaizkiola egotzi Elizari. Gaur

gaurkoz, abusu horiek familian, eskoletan, umeen ai-sialdian, eta kirol jardueretan ere gertatzen dira. Haurren Tratu Txarren Erregistro Bateratuak (RUMI) adingabeen aurkako indarkeria-susmoak jasotzen ditu, eta 2021 ean Espainian jakinarazitako 21.521 kasu jaso ditu; 2020an baino %37 gehiago, 15.688 izan ziren. Ez da ahaztu behar zifra horiek adingabeek pairatzen duten benetako indarkeriaren icebergaren tontorra besterik ez dutela erakusten, eta kasu gehienetan ezkutuan geratzen direla abusuok (Save the Children, 2021).

5.2. Mojen bizimodua

Atal honetan, mojen ahotsa ardatz izanda azalduko dugu euren bizimodua zer nolakoa den: zer den komunitatea, nola ulertzen eta bizi dituzten botoak, zein den haien eguneroko errutina eta zein aldaketa egin dituzten azken hamarkadetan, zeintzuk diren haien sos-tengu ekonomikoa, edota zahartzarora nola bizi duten. Horretan sartu aurretik, baina, elkarrizketatuetik jaso



ditugun irudipen eta harribitxiak xedatuko ditugu lehenik; izan ere, elkarrizketetan bizitako xehetasun txikienek ere haien nortasun eta bizimoduaren berri eman baitziguten.

Mojen ikonografia eta ideografiarekin apurtzen duten xehetasun horietako batzuk dira komentu barruan egitaritzen dituzten lanak. Mojak ez daude egun guztian otoitz egiten; ez dira mugatzen soilik sukalde-lanak egitera edo besteen zaintzara. Mojek lan eta gaitasunak anitzak dira: eskulanak egiten dituzte, poemak idazten dituzte, txorien kantak identifikatzen eta sailkatzen dakite, naturaz gozatzeko eta naturara gerturatzeko txokoak maitatzen dituzte, sendabelarretan adituak dira, urte luzez barazkiak eta frutak ekoiztu dituzte, etxeko lorategiko belarra mozten dakite, ez daramate egun guztian abitua edo beloa jantzita, zuhaitzak kimatzen dakite, motozerra erabiltzen dakite, autoa gidatzen dute, bakardadean bizitzen dakite, elkarrekin irteerak egiten dituzte, egun pasaz eta oporrez gozatzen dute, jendarteari so daude, bizi ditugun mandamentu hipermodernoekiko¹¹ (birzikla zaitetz etengabe!; konfort gutetik ateral!; bidaia ezazu!; bila ezazu berriena!; ez ezazu denborarik galdu!; Ez zaitetz egon triste! etab.) kritikoak dira, jendarteko pertsona zapalduekin harremana erein dute: izan emakume, preso dauden pertsona, etab. Finean, mojen ohiko estereotipoak hausten dituzten xehetasunen zerrenda luzea da Oñatiko mojen artean.

5.2.1. Komunitate-bizitza zer den

Komunitate bizitza zer den azalduko dugu atal honetan. Lehendabizi, jakin beharrekoa da moja guztiek ez dituztela elkarbizitza modu eta arau berberak jarraitzen. Alegia, kongregazio edo elkarte bakoitzak, badu bere Konstituzioa, fundatzailearen bizimoduari edo sinemenei jarraiki. Beneditarrek, esaterako, San Benitoren jarraitzaileak dira eta hortaz, haren bizi eta baloreei lotuta bizi dira. Bidaurretako eta Santa Anako klaratarrek, aldiz, Asisko San Frantziskoren eta Santa Klararen jarraitzaileak (edo, euren esanetan, haien alabak dira) eurek utzitako legatuari begira bizi dira.

Klausurakoa ala bizitza aktibokoa izan, bizimodu ezberdina dakar bakoitzak. Santa Anako eta Bidaurretako Klaratarrek klausurakoak dira eta Beditarrak, aldiz, bizitza aktibokoak. Azken horiek, adibidez, jendaurreko zerbitzua ematen dute Elkar Hezi Eskolan; hori izan da, hain zuzen, beste biekiko ezberdintasun nagusia, ge-

roago azalduko dugun modura. Izan ere, gainerakoan, hiru komunitateak Jaunari emanak, garbitasunean, pobre, otoitzean eta lana eginez bizi izan dira.

Monastegi bizitzan, lehenik eta behin, bakardadea bilatzen dela kontatu zigun ahizpa Beditarrak; izan ere, bere ustez Komunitatean bizitzeko gai dena da soilik gai Jainkoa bilatzeko. Beraz, lehenik erakutsi behar da anaitasunean bizitzeko gaitasuna. Araudian ere hala dio: lehenik, entzun jaungoikoaren hitza; bigarrenik, maitatu mundu guztiko pertsonak. Hori da, beraz, euren ustez garrantzitsuena, lege eta otoitz guztien gainetik.

Bada, bi elementu horiek giltzarri dira mojen bizimoduaren: komunitate bizitza eta bakardadea. Bien arteko konbinazioa behar-beharrezkoa da euren helburua lortzeko, alegia, "Jaunaren bidea" egiteko.

Komunitate bizitzak esan nahi du guztiak bat direla eta zoriontsu izateko elkar laguntzen dutela; elkar maitatzen dutela. Familia edo etxeko direla ere aipatu dute. Hain zuzen, komunitateak zentzua ematen die euren misioari eta horrexegatik, komunitatea da guztiek gogokoen dutena; aipatzen dute, elkar ezagutza handia dela eta guztiak bat izatean, familia handi bat osatzen dutela. Hala, senideen berriak, elkarrekin partekatu eta ospatzen dituzte.

Era berean, aitortzen dute elkarbizitza dela zailena: diote denak direla ezberdinak, jatorri, ohitura eta hizkera ezberdinekoak desadostasunak eta gatazkak izaten dituzte, noski. Eta hain zuzen, horiei aurre egitea da kristau onaren egitekoa. Izan ere, diotenez, erlijioitsuak izan aurretik pertsonak dira eta bakoitzak baditu bere gabeziak.

Hain zuzen ere, elkar laguntzari "zerbitzua ematea" deitzen diote. Euren funtzio nagusia hori dela diote. Sartu zirenean ez zekiten zer zen zerbitzatzea eta bidean ikasi egin dute, nagusitu egin dira: monastegira sartzean jendearen alderdi ona bakarrik ikusten zuten, baina gerora pertsonak bere osotasunean, gabezia eta ahuleziekin, ezagutu dituzte. Eta hain zuzen ere, elkar-laguntzean datza zerbitzatzeak.

Zentzu horretan, garrantzitsua da gatazken konponbiderako borondate ona izatea eta Ebanjelioa bizitzea; alegia, batek ondo egiten ez badizu ere, zuk hari ondo egitea. Diotenez, erabakiak hartzeko garaian, gehien-goaren nahia errespetatzen da, bakoitzari gustatu ala ez. Eta noski, elkarbizitza zaila da. Moja bizitza, elkarte bizitza da, baina batez ere Jainkoari emandako bizitza da: "*Jainkoari eman diogu bizitza, mutil bati edo familia bati eskaini beharrean*" (Partehartzailea 5). Moja izatea-

¹¹ Iñigo Martínez Peña idazleak mandamentu hipermodernoekiko buruzko gogoetak jasotzen ditu bere liburuan "Mandamentu hipermodernoak".

ren alternatibatzat dute familia osatu eta bizitza senarrari, gurasoei zein seme-alabei eskaintzea. Hain zuzen ere, familia bat sortzeari uko egitea errenuntzia bat dela ulertzen dute, hartu duten bidearen alde.

Jendarteko injustizia eta miseriari aurre egiteko misioa dute eta horretarako espiritualitatea sustatzen dute erlijiodunek. Halaber, errealtateko zapalkuntzen inguruan kritika egiteko gaitasuna dutela pentsa daiteke. Bada, diotenez monastegian arrazoia izatea ez da garrantzitsuena, zerbitzatzea baizik. Hain zuzen, jendar-tean ere hala izatea nahiko lukete eta eredu izan nahi dute. Diotenez, (auto)kritika egiteko gaitasuna garatu egiten dute eta batez ere, barrura begiratzea bilatzen dute; horretarako bakardadea eta otoitza gakoak dira. Hain zuzen ere, arrazoia izatea bigarren mailakotzat jotzen dute lan intelektualaren ekoizle baino gehiago, jarraitzaile sentitzen direlako. Generoaren arabera lan banaketaren isla da hori.

Bakardadea preziatua da haientzat. Barrura begiratze-ko, behar dute otoitza eta behar dute bakardadea. Ildo beretik, bakarrik egoteko tokiak dira mojen kuttunenak: besteak beste, lorategia, kapera edo logela. Toki intimoak dira, bakartiak, isolatuak. Gustukoenak dira, hain zuzen, hor oinarritzen delako bizitza kontenplatiboa: Jainkoarekin harremantzeko toki edo espazio horiek erabiltzen ditugu eta horregatik dira haientzat estimatuenak. Finean, emozioak ulertu eta onartzeko tartea da bakardade hori gakoa da, pertsona eta komunitate hobia bilakatzeko prozesuan.

5.2.2. Botoak

Bide horretan, botoak hartzen dituzte mojek: Jesusi eta Elizaren erakundeari egiten dioten promesak dira eta balio diete gizadia nola zaindu behar duten jakiteko: obedientzia, garbitasuna edo kastitatea eta pobrezia dira moja guztiek komunean dituzten botoak.

Datozen lerroetan, euren bizimoduan eragin zuzena duten bi boto landuko ditugu: pobrezia botoa eta obedientzia botoa. Garbitasun edo kastitate botoari dago-kionean, labur jardun dugu: izan ere, botoaren zentzua argia dela diote eta ez dute horretaz eztabaidatzen.

Pobreziaren esanahia oso zabala da. Ahizpen artean ere ulerkera ezberdinak daude: *"Gizadia sentitu behar dugu gure etxe; maitatu, zaindu eta gauzak sinplifikatu, beharraren arabera erabili. Zentzu horretan niri ere izugarrizko beldurra ematen dit ezer edukiko ez bagendun... benetan pobre bizitzea: zer jan, zer jantzi, non lo egin..."* (Parte hartzailea 6).



Kontziente dira, munduko moja guztiek ez dituztela bi-zi-baldintza berdinak eta, zentzu horretan, komunitate berbera izan arren, tokian tokiko erronkak ezberdinak direla. Santa Anako mojek egun duten eztabaidetako bat da, hain zuzen, nola uztartu pribilegioa eta pobrezia. Nola gaurkotu Erdi Aroko pobreziaren esanahia: izan ere, Santa Klara oso erradikala izan zen bere garaian eta gizon feudalen aurka asaldatu zen. Santa Klara 1253an hil zen eta garaiak aurrera egin ahalaz bat, pobrezia bizitzeko modua nahitaez aldatu egin da: esaterako, 1963an komentuek ondasun pribatuak izateko pribilegioa eskatu zuten.

Mojen aburuz pobrea izatea ere bada gabeziaduna, ahula, mugatua zarela aitortzea. Ulertzen dute gizakiok Jauna behar dugula, hain zuzen ere pobreak garelako. Jaunaren bideak erakusten die, boto honen bidez, inor baino hobeago ez sentitzen eta umil jokatzen. Zentzu horretan, pobrea zarela aitortzea, tresna bat da komunitatean arreta jartzeko. Pertsonen dohainak ez dira norbere jabetzakoak, besteekin partekatzeko baizik, omen dio San Frantziskok.

“Dena amankomunean daukagu, modu komunitarioan bizi gara, eta Jaungoikoak gutako bakoitzari eman digun dohaina besteen zerbitzura jarri behar dugu, gu guztion bizitza emankorra eta partekatua izan dadin. Azken batean, San Franziskok esaten duena: dohain horiek ez dira zure jabetzakoak, besteekin konpartitzeko dira” (Parte hartzailea 5).

Ekonomia feministatik badira kontzeptu horri hurbiltzen zaizkion hainbat ideia eta aldarri: bizitzaren aldeko borroka da feminismoa eta horrek ezinbestean jartzen du jomugan kapitala (Sagastizabal, 2020). Ideia nagusia da pertsonak ekodependenteak eta interdependenteak garela: alegia, munduko izaki bizidunak garenez gero, ekosistema horren menpeko garela; era berean, giza-kiok gainerako gizakien, eta, beraz, bizikideen menpeko ere bagarela alegia, animalia soziala gara eta ez dugu bakarrik bizirauterik; pobrezia lotuta ere aipagarriak dira, egungo genero-sistemak emakumeei eragiten digun pobrezia ere: materiala zein denborazkoa (Sagastizabal, 2020).



Aipatzen dute haiek moja sartu zirenean, gazteak izanik, ez zutela kontzientzia feministarik eta ez zutela problematizatzen emakumeei jendartean inposatzen zitzairen rola. Beraz, ez zirela moja sartu beren beregi hori iraultzeko. Hala ere, aitortzen dute, heltzen eta formazioa jaso duten heinean hartu dutela kontzientzia hori, ez noski feminismoaren izenean, balio kristauen aterkipean baizik. Zentzu horretan, argi dute ez direla inoren esklaboak: *Jesusek bizitza eman zuen gugatik eta guk ere gure bizitza eman behar dugu, baina ez gara esklaboak. Lan pertsonal handia egin behar da, eramaten ez uzteko”* (Parte hartzailea 10). Finean, zoriontasunerako bidean sakontzeko norbere intentzioari, beharrari, zerbitzuari jarraitzen diote.

Mojen iruditeria sozialaren elementu garrantzitsuenetakoa da obedientzia. Baina zer da obedientzia haien zat? Diote obedientzia ulertzeko modua aldatu egin dela azken hamarkadetan: obedientzia zen sumisioa. Gogoratzen dute abadesari “su Reverencia” deitzen zioten garaia, zeinetan denerako baimena eskatu behar zuten. Infantilismo eta botere-harreman argia zegoen.

Gaur egun, aldiz, mojak ez dira garai hartako gazteak. Helduak dira eta urte asko daramate elkarrekin bizitzen eta euren bizimoduaren baitan harreman pareki-deak sustatzen. Obedienteak dira, gainontzeko ahizpen beharrekiko. Elkar laguntzen diote eta ez dute baimenik eskatzen edo zerbait egiten abadesaren agindu hutsagatik. Obedientzia diote fedeari eta horrek suposatzen du, diotenez, garrantzirik ez duena zure bizitzatik albo batera uztea eta garrantzitsua den horretan soilik zentratzea.

Egun, erabakiak hartzeko komunitateko Kontseiluak osatzen dira: abadesa eta bere aholkulariak. Postu horiek txandatu egiten dituzte. Kontseiluak bilerak egiten ditu astero. Hizketagaiak izaten dira, bestek beste, euren arteko harremanak, nola antolatu lana aurrera ateratzeko, dependentsia duten pertsonen zaintza nola banatu, mojen formakuntza-egutegia.

5.2.3. Eguneroko errutina

Aztergai ditugun hiru komunitateek errutina berdintsua jarraitzen dute, ordutegian ezberdintasun txikiak egon arren. Ohiko egunetan tinbrea edo iratzargailua daukate esnatzeko. Egun berezietan, berriz, musika ere jartzen dute, adibidez, norbaiten urtebetetzea denean. 06:30 edo 7:00etan esnatzen dira gehienak, nahiz eta moja batzuk lehenago ere iratzartzen diren adineko ahizpei laguntzera. Igandetan pixka bat berandago esnatzen dira.



Ondoren, ordu erdi bat izaten dute prestatu eta Elizara joateko. Lehen otoitza egiten dute, elkartean: *matines*. *Salmos y lecturas*. Ondoren, ordu eta laurdenez otoitz pertsonala egiten dute, bakarkakoa: *laurdes*. Tarte horretan bakoitzak nahi duen tokitik egiten du otoiz. Batzuk Elizan bertan gelditzen dira, baina beste batzuk alde egiten dute. Gogoan dute, 1970eko hamarkadara arte, otoitz hau elkarrekin egiten zutela, koruan eta ilunpetan.

Otoiz horien ondotik gosaldu egiten dute. Gosaria isilean egiten da egun arruntetan eta hizketan, eurentako baten urtebetetze eguna (*santua*) bada. 09:30ean lanearan hasten dira eta lanerako deia kanpai-soinuarekin egiten da. Bakoitzak bere funtzioaren arabera lan, janzkera eta ordutegia izango du. 12:15etan lana uzten dute eta 12:30ean Elizara joaten dira ordu erdiko beste otoitzaldi bat egitera: *Sesta*.

Jarraian bazkaldu egiten dute. Santa Anan, bazkaritan irakurgaia egiten dute: komunitateko batek irakurri egiten du guztiek aurrez aukeratutako gai bati buruz. Irakurgai edo dokumentazio horiek gaurkotuak izaten dira: Vatikanokoak zein Aita Santuarenak. Igandetan eta asteburutan, horren ordez, musika apur bat eta tertulia izaten dute, 14:00ak arte.





14:15ean kanpaia jotzen da isiltasuna eskatzeko. Moja batzuk ordu horretan siestara joaten dira, beste batzuk pasillotik ibiltzera, eta beste batzuk eskulanak egitera edo irakurtzera, 15:45era arte. Orduan berriro itzultzen dira elizara otoitzaldi labur bat egitera: *Nona*. Elizara joateko guztiek abitua janzen dute. Ondoren, berriro aldatu eta lanera joaten dira, 16:00etatik 17:15ak arte (lan kopuruaren arabera luzatu egin daiteke).

17:15etan meriendatzeko aukera izaten da, bakoitzak bere aldetik eta 18:30ak arte norberarentzako denbora izaten dute. 18:30ean meza izaten dute eta ondoren otoitza: *Bezperak*.

20:30etan afalordua izaten dute. Lehenengo irakurgaia egiten dute: parleta. Eta amaitzeko, azken otoitza egiten dute: *Konpletak*. Gero, beharraren arabera, oheratzen hasten da jendea.

Hiru urtetik behin ofizioak banatzen dituzte eta hori ere zehaztuta etortzen da: atezaina, zaintzailea, erizaina,

farmazia arduraduna, erosketa arduraduna, bibliotekaria, etab. Lan horiek ordainpeko lanarekin uztartzen dituzte eta lanen-banaketa adostua egin.

5.2.4. II Kontzilioa, aro berri baten hasiera

Ikerketa honen testuinguruan, Kontzilioak mojengan eta haien errutinetan izandako eraginaren garrantzia azpimarragarria da, bertan zehaztu baitzen Eliza Katolikoaren egiturapean zeuden pertsona guztientzako arautegi berria. Kontzilioaren ondoren krisia izan zela eta "Liberazioaren aldeko teologia" mugimenduak eragin handia izan zuen Latinoamerikan. Esanguratsua da munduko 8000 jesuitak, Kontzilioan jasotakoarekin desados, Eliza utzi izana.

Vatikanoko II Kontzilioa XX. mendeko gertaera garrantzitsuenetakoa izan zen Eliza Katolikoaren baitan. 1962tik 1965era arte iraun zuen, eta lau topaketa egin ziren mundu osoko 2450 apaizen parte hartzearekin.

Kontzilioaren helburu nagusiak lau izan ziren: 1) fede katolikoa sustatzea, 2) fededunengan berrikuntza moral lortzea, 3) elizako diziplina garaiko behar eta egiteko moduetara egokitzea, eta 4) elkarlana estutzea Eliza Katolikotik bereizitako Elizekin, bereziki, protestanteekin eta orientalekin.

Garaia bizi izan zuten mojek adierazi dute inflexio puntu bat izan zela euren bizimoduan: askatasun eta irekitasun gehiago ekarri zirela aipatzen dute mojek. Guztiak ados daude Kontzilioarekin batera, euren egitura, egiteko eta bizitzeko modua garai berrietara egokitu zela.

Klaratarren iritziz, bereziki, haien arteko harremana aldatu da. Hain zuzen, autoritatea eta ahizpen arteko harremanak: "*Lehenago abadesak esan eta erabakitzen zuen guztia, gainontzekoak isildu egiten ginen. Gaur egun hori asko aldatu da, ikusten delako ahizpadi bat garela eta orduan gure arteko harremanak berdina izan behar direla.*" (*Partehartzailea*, 3)

Aitortzari dagokionez, lehenago astero-astero joaten ziren, baina orain ez. Konfesio komunitarioa egiten dute, konfesio zuzena egin ordez. Lehen konfesatzailea etortzen zitzairen eta penitentziak ematen zizkieten. Egungo ikuspegitik, zentzugabea zela iruditzen zaio ahizpa Beneditar bati.

Gaueko otoitza ere izaten zuten: 24:00etatik 1:00etara izaten zen, baina hori ere Kontzilioaren ondoren kendu egin zuten.

Otoitzerako momentuak mantendu arren, liturgia testuak aldatu egin dituzte: irakurgai astunetatik, egungo teologoen ekoizpenak irakurtzera. Egungo teologoen, tartean emakumezkoek idatzitakoak irakurtzen dituzte Santa Anako Klaratarrek, adibidez. Bidaurretakoak, berriz, Vatikanoko berriak eta irakurgaiak aipatzen ditu: oso hurbiletik jarraitzen dituzte Aita Santuaren eta Vatikanoren erabakiak, mezuak, adierazpenak. Eta, aitortzen digute, beti ez dutela harekin bat egiten:

“ez du lan makala, denen gustua egitea ez baita posible izaten, baina Aita Santu honek asko sufritzen du bazterreko jendeagatik eta horrek deserosotasuna eragiten du alderdi kontserbadorean. Librea da oso, gehiegi batzuetan eta oreka topatzea ez da erraza” (Parte hartzailea 1).

Beste aldaketa nabarmen bat hizkuntza izan da: latinez otoitz egitetik euskaraz otoitz egin eta euskaraz bizitzera igaro ziren bi komunitate. Izan ere, Bidaurretan gaztelaniaz bizi dira, oro har. Euskaraz ulertzen ez duenik bada eta horregatik, guztiek ulertzeko modua lehenesten dute. Beneditarretan eta Santa Anan, aldiz, ez zen aldaketa erraza izan, testuak sortu gabe baitzeuden eta guztia itzultzea lan eskerga izan zen. Euskaldunak izan arren, ez zuten Euskara Batua ezagutzen eta erronka izan zen guztientzat hizkuntza berrira egokitzea.

Azpiegitura ere aldaketa horien adierazle da: komentuen hesitura zeuden. Leihoetan burdin-hesiak zituzten, eta oraindik ere espazio batzuetan itxitura horiek mantentzen dira, esaterako, Bidaurretan. Mojak, lehen, ez ziren komentutik ateratzen zerbait larria ez bazen. Bertara bisitan etortzen zitzairenean ere, kontaktu fisikoa galarazita izaten zuten. Izan ere, bisita-gelan burdin-hesiak zeuden. Bisitariarekin zerbait trukatzeko tornua zuten. Beneditar batek dio familiako senide gazteenak galdetu ziola behin ea zigortuta ote zegoen, giltzapetuta egoteko. Bada, belaunaldi berrientzat harrigarria zen hesitura bizitzea. Kontzilioak baimena eman zuen burdin-hesiak kentzeko eta Beneditarretako orduko Abadesak, Maria Isabelek, segituan kendu zituela gogoan dute. Bidaurretan, aldiz, mantentzen dituzte, tradizioari eutsiz.

Beste adibide bat da mojen tokia mezan. Lehen, apaiak meza ematen zuen herriari bizkarra emanda eta aldarea herriaren eta mojen artean zegoen. Beneditarrek ez zuten halakorik nahi eta Montserrateko mojen eragin eta bultzadari esker, herriaren alde berdinean, lehen lerroetan, esertzen hasi ziren. Horrela eman zen aldaketa: herriaren eta mojen arteko distantzia ezartzetik, gertu agertzera. Esan beharra dago, Montserrateko monjak askotan aipatu izan dituztela Beneditarren,



pentsamendu ireki eta feministaren erreferentzia gisa. Sarean bilatuta, izenburu hau duen artikulua aurki daiteke: “Unas monjas peligrosas: Las benedictinas de Montserrat”. Forcades ahizparen pentsamendu feminista dakar artikuluan:

“Desde que estoy en Sant Benet se ha confirmado y crecido en mí el espíritu feminista”; “Mucho antes de entrar en el Monasterio discutía con el seminarista de la parroquia lo absurdo que era para mí la discriminación de la mujer para acceder al sacerdocio y los argumentos poco sostenibles que se me presentaban desde la institución”; “En Sant Benet estudiando un poco de teología y Biblia y escuchando a mis hermanas, me he acabado de convencer que hoy en día se tiene que ser feminista en la Iglesia”; “Sorprende tomar conciencia de como de patriarcal y machista llega a ser la tradición católica y la manera silenciosa como nos hemos acostumbrado”. Finalmente hace un alegato defendiendo lo positivo que sería que su Madre Abadesa fuera sacerdotisa y acaba diciendo “Es una lástima que esta voz de mujer no se puede oír desde

el ambón en las celebraciones dominicales y me entristece mucho pensar en el empobrecimiento que ello supone". (Pius, 2019)

Bada, Beneditarrek erreferentzia hori oso presente dutela jakin ahal izan dugu. Aldaketei jarraiki, azpiegituran beste aldaketa progresibo bat eman da: teknologia. Enplegua zein etxeko lana aurrera ateratzeko garbigailuak, sukalde industrialak eta menpeko pertsonen zaintzarako bitartekoak dituzte, egun. Orain dela hamarkada batzuk, ikatzezeko sukaldeak zuten, garbiketa eskuz egiten zuten eta menpeko pertsonen higienarako telazko pardelak erabiltzen zituzten. Diote, garai harekin alderatuta, lanak errazago direla orain.

Jaso duten heziketak lagundu die Kontzilioak ezarritako arau berri hori interpretatzen eta bizimodua eraldatzen. Izan ere, heziketarako tartea dute egunero: teologia testu gaurkotuak irakurtzen dituzte. Horretaz gain, formazio trinkoak ere egiten dituzte, erretiroetan, hilean behin. Norbait etortzen zaie kanpotik eta oro har, eduki berriak lantzen dituzte, euren kristau eta komunitate bizitzari buruz gogoeta egiteko. Guztiek diote formazioa ezinbestekoa dela bizimodu horri eusteko: euren norabidea aurkitzen laguntzen die.

5.2.5. Kongregazioak iraunarazteko baliabide ekonomikoak

Lanaren bitartez lortutako diru-sarrerak dira Oñatiko komunitate guztien sostengu ekonomiko nagusia. Langile-klaseko komunitateak izanik, lan eskerga egin dute euren proiektuak aurrera ateratzeko. Mojek azaldutako lanak askotarikoak izan dira, garaiaren arabera aldatuak.

Moja klaratarrak esku-lanetan aritu izan dira gehienbat: Bidaurretakoak, bereziki trebeak izan dira bordatueta. Mantelak eta maindireak bordatzen zituzten ezkontzen zirenentzako. Santa Anako Klaratarrak, berriz, jantzien garbiketa-lanetan espezializatu dira azken hamarkadan eta, batez ere, fabriketako langileen arropak garbitu izan dituzte.

Enpresentzat egindako lanari dagokionez, biak ala biak aritu izan dira zotzak kaxetan sartzen, Betik enpresarentzat; aterkien piezak mozten, Natra-Zahorrentzat bonboiak kaxetan sartzen, Astorerentzat jantziak josten, gabardinak egiten, narruzko jakak josten edota bisagrak muntatzen Becusa enpresarentzat.

Mojen eskulana, emakumeena izaki, ez da gizonena bezain beste aitortu izan eta lan-baldintza gogorak izan



dituztela salatzen dute. *Gure genealogia feministak* (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015) liburuan jasotzen da emakumeen lan-baldintza duinen aldeko borroka, 70eko hamarkadatik aurrera: lanpostuek sexuaren arabera balorazioa zutela jabetu ziren eta, emakumeek soldata kaskarragoak zituztela, oso antzeko lanak egiten zituzten gizonezkoen soldatekin alderatuz gero. Bada, soldata arrakalaz gain, emakumezkoek eskatzen zitzairen eskulana bereziki gogorra izaten zen. Horrengatik, Santa Anakoek, adibidez, enkargu batzuk baztertu izan dituztela, jasangaitzak zirela iritzita: *"gogoratzen dut Zahorreko enkargu bati ezetz esan geniola. Egunero 300 traje garbitu behar genituen, ur beroarekin eta tenperatura zehatz batekin. Proba bat egin genuen baina hura gehiegi zen, eta ezetz esan genion"*(Parte hartzailea 3).

Egun, Santa Anako moja batzuek jarraitzen dute enpresa zein partikularrentzat garbiketa- eta lisatze-lanak egiten, baina lehen baino neurri txikiagoan; beste bi komunitateek honezkero ez dute lanbiderik. Mojen adinagatik, gehienak jubilatuta daude eta pentsionistak dira. Erretiroa hartzeko unea moja bakoitzaren osasunaren



araberakoa da: bere gaitasun eta beharren araberakoa, hain zuzen. Enpleguan jarraitu ala erretiratu, moja bakoitzaren erabakia da. Oñatiko moja gehienak 60 eta 70 urte bitartean erretiratu izan dira.

Moja bakoitzak zegokion lan-jardunaren arabera kotizatu du: izan irakaskuntza, izan garbiketa zein esku-lanak. Hala ere, badira kotizatu ez duten mojak: hauek dira komunitatearen barne antolakuntza lanetan aritu izan direnak. Kotizatu ala ez, guztien pentsioak batzen dituzte eta komunitatearen beharrei erantzuteko erabili. Kongregazio bakoitzean diru-poltsa bakarra eta komuna dago; diru-sarrerak ez dira indibidualizatzen; ez da bereizketarik egiten. Alegia, dirua guztiena da. Bidaurretako mojen arabera, egun justu-justuan bizi dira pentsioekin. Baina horren ondoren, komunitatearen ondasunei buruz galdetuta, aipatu du Ordena katolikoak Zarautzeko klaratarren monasterioa saldu duela: eroslea Zarauzko udala izan da eta salmenta ona izan dela iritzi dio Klaratarrek. 5 milioi euro ordaindu dizkio Zarauzko Udalak Ordena Katolikoari.



Aipagarria da, monasterioen beste diru-sarrera esanguratsu bat izaten zirela doteak. Garaiaren arabera aldatu zela diote mojek eta azkenik, II Kontzilioarekin ezabatu egin zen: 1731ako ezaugarriak jasotzen ditu *"El monacato femenino en los siglos XVI-XIX: un ejemplo, el convento de clarisas de Bidaurreta"* (1999) artikuluan M^a Jose Lanzagorta Arco ikerlariak: 40 dukat¹² janari, nobizio-aldirako. Moja bilakatzean, 800 dukat eta propina gisa, 40 dukat, 20 libra¹³ argizari zuri eta 36 makila granillo, jangelako mantelentzat. Hortaz gain, oherako eta janzteko beharrezko guztia eraman behar zuen, baita botikak ere. Elkarrizketatutako mojek dote gisa eraman zituzten telak eta oheko arropak, plater eta jateko tresnak zein higiene pertsonalerako zenbait kontu.

Gaur egun, kongregazioek ondasun ezberdinak dituzte jabetzan: hutsik dauden, konbentuak edota baserriak. Azkenik, aipagarria da egun mojek duten diru-sarrera bat: herentziak. Moja bati herentzia bat egokitu izan zaionean, ondasun edo diru hori konbenturako izan da. Komunitate bakoitzaren arabera, beraz, ondasun kopurua eta aberastasun maila ezberdina izan da eta halaxe da, gaur egun ere. Bakoitzak duen ondasun kopuruaren inguruko xehetasun gehiago ez dugun arren, esan dezakegu, mojak bertan erretiroa bizitzeko adina diru dutela, hiru komentuek.

12 Errege Katolikoek ezarritako urrezko moneta: Dukat 1, 375 marabediren baliokidea zen, baita Gaztelako 11 errealea ere.

13 Libra 1= 453,592 gr.




5.2.6. Zahartzaroaren zaintza-beharrak

Mojen zaintza-beharrak ezagutzea ere izan da lan honen xedeetako bat. Izan ere, komunitateetako mojen adina 70 eta 90 urte bitartekoa da eta horien artean, badaude menpekoak direnak.

Bidaurretan esaterako, 17 dira eta bi mojak menpekotasun maila altua dute. Beneditarrek 10 dira eta bi daude menpekotasun aitortuarekin¹⁴; Santa Anan 21 moja daude eta 4 menpeko egoeran: batek erabateko laguntza behar du, beste batek mugitzeko behar du laguntza eta beste bik laguntza behar dute dutxan.

Horien arretarako eta gainerako mojei ere etxeko lanetan laguntzeko, kanpoko laguntza jasotzen dute hiru komunitateek: Oñatiko Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen dute: astelehenetik ostiralera zerbitzua da eta menpekotasun egoeren eta pertsona kopuruaren arabera ezartzen da laguntza. Beneditarrek astebururako zerbitzua ere badute, astegunez zerbitzua ematen dieten langile berdinekin. Hala ere, asteburuko zerbitzua %100an ordaindu beharrekoa da, Udalak ez baitu zerbitzua ematen. Zerbitzua pertsona berberek ematea lehenetsi zuten eta gastua izan arren, Udalak egiten duen ekarpenarekin pozik daudela adierazten dute.

Era berean, menpeko pertsonen zaintza ez dute erabat langileen gain uzten. Uste dute oso garrantzitsua dela moja horien zaintzan ahizpek ere parte hartzea. Diote



lan gogorrenak egiten dituztela langileek, baina etxe-koak ere aldamenean egoten direla; menpeko izateagatik pertsonak komunitateetik isolatzea ekiditen saiatzen dira eta zentzu horretan, menpekoek otoitz egiteko modua ere egokitu dute: hiru komunitateetan megafo-
nia baliatzen dute menpeko pertsonak otoitza jarraitu ahal izateko; hori garrantzitsua dela uste dute, izan ere, euren bizimoduari zentzua ematen dioten momentuak dira eta behar-beharrezkoak dira.

Zahartzaroan ere komunitatea batuta eta osasuntsu mantentzeko gakoa da bakoitzak funtzio bat mantentzea. Ildo horretan, lanak guztien artean ateratzen dituzte aurrera: Bakoitzak ahal duen neurrian laguntzen du eta ekarpen hori balioan jartzen dute. Alegia, zahartzaroan, zerbitzua ematea eta elkar-laguntzea sekula baino presenteago dute. Hori da, geroz eta ahizpa guxtiago izan arren eta tarteka, osasunak oztopoak ipinita ere, komunitatea eusten duena.

¹⁴ Menpeko adiera erabiliko da menpekotasun aitortuaren balio-kide gisa; alegia, autonomia murriztua dutela adierazteko.


5.3. Mojen ekarpena

5.3.1. Norbere burua ezagutzea

Ikerketa honen hirugarren helburua izan da mojen komunitateek Oñatiko herritarrei egindako ekarpena edota emandakoa dokumentatzea. Ekarpene materialaz harago, euren, ekarpen sinbolikoa dela ulertu dugu. Hala, datozen lerroetan azalduko dugu zergatik nahi duten mojek jendartearentzako eredu izan, bizitza kontenplatiboaren nahiz barrurako bizitzaren gako-eraldatzaileak zeintzuk diren eta euren otoitzarekin egiten duten ekarpena zein den.

Bizitza *kontenplatiboa* barrurako bizitza bat da; komunitatea osatzen duten ahizpen lehentasuna da lan pertsonala egitea otoitzaren bidez. Lan pertsonala eta gogoeta hori, pertsonen sufrimendua arintzera dator, hain zuzen ere, pertsonen ongizateak kezkatzen dituelako bizi dira komunitatean.

Komunitateek eredu izan nahi dute herritarrentzat eta euren ongizatea lortzeko bidea erakutsi: komunitate-bizitzaren balioak dira elkartasuna, errespetua, maitasun-



na eta elkar laguntza. Euren ustez, ezintasun eta errespetu falta handia dagoen jendartearen, euren erakusten dute posible dela beste modu batera bizitzea.

Euren funtzioa ulertzeko fedea edota Jainkoaren esperientzia izan behar dela diote. Haien diote gaur egungo ikuspegitik, federik gabe, zaila dela euren munduan duten tokia justifikatzea; izan ere, Jainkoaren esperientzia barruan daramate eta eredu dira ukoak egin dituztelako. Gauzei uko egiten diete, Jainkoari garrantzia emateko. Hala, besteak beste, erakusten dute posible dela ezer gutxiarekin bizitzea.

Egitekoa argi dute, baina badakite herriaren atxikimendua geroz eta txikiagoa dela. Diote jende askok jada ez dituela ezagutzen, belaunaldi gazteak batez ere. Ezezagutzatik sortzen direla aurreiritziak eta gutxiespenak: *"emakume horiek zer egiten dute hor? Denbora pasa? Hori da gehienek pentsatzen dutena"* (Parte hartzailea 5). Pena da horrela izatea, baina diotenez, Jesusen esperientzia izan barik, zaila da euren duten balioa ulertzea.

Auto kritika eginez, ahizpa batek dio, bere ustez komunitateak ireki egin beharko lukeela: *"guk bilatu beharko genituzke bideak jendeari esateko, aukerak emateko. Etorzen denari harrera ona egitea funtsezkoa da, baina harago joan beharko genuke"* (Parte hartzailea 8). Izan ere, jendartearen erlijio kristauak geroz eta presentzia gutxiago duenez, jendea ez da euren gana berez iristen.

Dena dela, denak du muga bat: argi dute euren egitekoa dela jendeari konektatzea eta hori otoitzaren bidez egiten dute. Aurrez aurreko harremanak ere garrantzitsuak dira, baina modu puntualean bakarrik. Jendeari kontaktu zuzena izatea, beraz, ez da euren egiteko nagusia, baina bai funtzio osagarri bat, euren helburua lortzera bidean.

Otoitzaren esangurari buruz galdetuta, diote ez dela hitzen segida bat, Elizaren errelatoa baizik. Gizateria guztiagatik egiten da otoitz eta egun berezietan norbaitentzat, berak hala eskatu badigu ala lagundu nahi badiogu. Geroz eta gutxiago izan arren, oraindik ere jasotzen dituzte eskaerak: esaterako, pertsona batek ebakuntza bat duenean edo ezkontzen direnean joaten zaizkie haiengatik otoitz egitea eskatzeko. Dena den, argi diote mirariak ez dituztela egiten. Aitzitik, laguntza emozionala da euren otoitza: *"zurekin gaude esatea bezalaxe"* (Partehartzailea 6). Finean, otoitza da Jesusen komunikatzeko bidea. Jainkoa *gurtzen* dute, bizitza *eskertzeko*. Jendeari sufrimendua eta pozak kontatzen dizkiete Jesusi.

5.3.2. Beneditarren eskola, balioen trasmisiorako gako-proiektua


Beneditarrak ilusio osoarekin jardun dute eskolan. 1900.urtean abiatu zuten mojek eskola-proiektua Oñatin. Orduan, Frantziatik etorri berri ziren eta han bildutako esperientzia ekarri zuten eurekin. Oñatin berritasuna izan ziren moja frantziarrak eta baita euren eskola ere. Klase altuko familiek eramaten zituzten batez ere haien haurrak mojen eskolara. Eta mojek eurek, bazuten klase altukoak izatearen fama. Errealitatean, berriz, Frantziatik ihesi etorritako komunitatea zen eta erabat ezezaguna zitzairen ingurune batean hutsetik hasi behar izan zuten, euren helburuari jarraiki: eskola kristaua sortzea Oñatin. Bada, 2023an, mojarik gabe bada ere, oraindik ere bizirik dirau eskola-proiektuak: Elkar Hezi du izena.

Eskolak bat egiten du moja Beneditarren helburuarekin, izan ere, euren ametsa da gizarte justuago bat eraikitzea, bakean eta elkartasunean oinarrituta. Balio ebanjelikoetan oinarritutako hezkuntza eta kalitatezkoa

ardatz. Hala, eskolarentzat bizitza eman dute Beneditarrrek. Lan eskerga egin dute eskolak aurrera egin zezan eta ikasleak prestatuta atera zitezten, bai akademikoki, baita giza balioetan ere. Azpimarragarria iruditzen zaien beste aspektu bat da Euskara: lehena izan zen euskaraz irakasten. Moja frantsesez gain, euskaldunak ere baziren eta euskaltzaleak izanda, pauso hori ematea amets bat errealitate bihurtzea izan zen.

Gipuzkoan, bigarrena izan zen euskaraz irakasten, Donostiako eskola baten atzetik. Hori aldaketa handia izan zen eurentzat, izan ere, materiala euskaraz prestatzen ez zeuden ohituta: gaztelaniaz edo frantsesez heziak izan ziren eta D ereduan irakasteko titulua atera behar izan zuten. Aita Lasa Agustinoak laguntza handia eskaini ziela gogoratzen dute.

Egungo ikuspegitik aurrerakoitzat jo daiteke, neska eta mutikoak elkarrekin hezteko. Lehen ikasleak neskak izaten ziren soilik, baina Marianisten Eskola itxi ondoren, bertako mutikoak ere Beneditarretan hartu zituzten. Moja batek oroitzen du, hasieran, gurasoak kritiko zire-



la erabakiarekin: mutilek neskekin batera ikastea mutilen kalterako zela uste zuten.

Eskola etengabeko eraldaketan ezagutu dute: Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzetik, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eskaintzera pasa ziren. Diote erronka handia izan zela: Batxilergoa emateko, bost irakasle lizentziadun izan behar zituzten eta euretako gehienek ez zuten unibertsitate-ikasketarik. Bada, ahizpetako batzuk ikasi egin behar izan zuten: lehenik *sarbide-proba* egin eta ondoren lizentziatura. Bizitzako epe horretaz sentsazio gazi-gozoa dute, ez baitzen garai erraza izan. Haiek Lehen Hezkuntzara arteko proiektua nahi zuten, euren filosofia izan baita komunitatearen tamainako proiektua izatea. Baina, Hezkuntza Deleagaritzak behartu zituen Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa hartzera. Ez zuten ez lokalik, ez pertsona nahikorik. Hala, lehenik ETEOn (egungo Eltzian) jarri zuten Bigarren Hezkuntza. Parrokiaren, Karitateko Alaben eta euren artean ekin zioten proiektuari. Baina 2001ean Karitateko ahizpek utzi egin zuten proiektua¹⁵, eurek jarritako dirua itzuli behar izan zieten, eta orduan, itolarria sentitu zuten. Zorionez, zorra kitatzea lortu zuten.

ETEOn, eskola martxan jartzeko eskola komunitate osoa jarri zuten lanean: *“Gogoratzen dut nola gurasoak aritu ziren garbiketan eta kamioiekin joan ginen mahai eta aulki bila Donostiara, hango eskola batetik kenduko zituztelako”* (Parte hartzailea 4). Gerora jarri ziren Batxilergoa eta Haurtzaindegia. Haurtzaindegi ereduak ikustera joan ziren Estatuko hainbat tokitara, garaiko pedagogia eredu aurrerakoi bat nahi zutelako euren etxerako.

Beste aurrerapauso bat izan zen doakotasuna bermatzea: eskola pribatua eta gerora kontzertatua izanda, ikasleek matrikula ordaindu behar izaten zuten. Bada, hori oztopo ez izateko, ordaintzeko zailtasunak zituzten familiei komunitateak ordaintzen zien. Familia asko dago laguntza baliatu dutenak eta egun ere hala izaten jarraitzen du.


Aurrera egiteko aldaketak txertatzea beharrezkoa dela dio eskolako arduradun ohiak. Atzera begirakoa egiten ohartzen dira zenbat urte daramaten elkarrekin eta egindako lanaz harro daude. Lan nabarmena egin behar izan dute proiektua aurrera ateratzeko, goizetik gauerako lan-jardunak sarri asko. Bada, orain, erretiraturuta daude eta diote lanaren konpentsazioa dela eskola hor ikustea, herriarentzat.

Eskola proiektuaren bilakaerak erakusten du moja komunitatearen sendotasuna eta lan egiteko gaitasuna; horretaz gain, emakume horien anbizioa, determinazioa eta lidergorako gaitasuna ere azpimarragarriak dira. Emakumeok euren proiektuaren alde lan egin zuten eta gaitasuna erakutsi zuten Oñatin eskola proiektu sendoa ezartzeko.

5.3.3. Sostengu emozionala

Mojen funtzio ikusezinetako bat sostengu emozionala izan da. Asko dira mojangana sostengu bila joandako herritarrak: izan laguna, ama, ahizpa, iloba, ezaguna edo ikasleen ama.

Beneditarrak irakasleak izanik, harreman estua izan dute ikasle batzuen gurasoekin; aitekin baino gehiago amekin. Izan ere, aitortzen dute amak izan direla haurren arduradun behinenak. Gehien bat, amak gerturazten ziren eskolara, bilera, hitzaldi eta tutoretzetara; salbuespena ziren agertzen ziren aitak. Bada, aipatzen dute euren lanaren funtzio garrantzitsua izan dela gura-



¹⁵ “Adiós a las Hijas de la Caridad tras 153 años”, *Diario Vasco*, 2016ko abenduaren 21ean. Esteka: <https://www.diariovasco.com/alto-deba/onati/201612/21/adios-hijas-caridad-tras-20161221003331-v.html>

soak entzutea: *"haurrak arazo bat bazuen segidan konturatzaren ginen eta entzun itten geben ama, por lo general. No tienes soluciones, pero tan solo escuchar vale mucho"* (Parte hartzailea 3). Harreman horietako batzuk gaurdaino irauten dute, ikasle ohien ama batzuekin, adibidez.

Emakumeek azaltzen zituzten arazoak, gehienetan senideen arteko gatazkak ziren. Ohikoa omen zen koinata eta amaginarrebekin gatazkak izatea eta horrek ondoez handia sorrarazten zien amei. Ahizpa batek aipatzen du normalean haurren arazoak arinak izaten zirela, baina arazo larriak familiaren baitakoak zirela: desadostasunak.

Bikote arteko arazoak ere ohikoak zirela uste dute, baina emakumeek ez zizkietela erraz kontatzen; Beneditarrek uste dute arazoak existitzen zirela baina horrenbestekoa zela emakumeen otzantasuna, ez zela hitz egiten.

Bidaurretako eta Santa Anako mojek ez dute nabarmendu funtzio hau euren egitekoen baitan, baina bada-kigu herriko hainbat emakume joaten zaizkiela bisitan, izan lagun, izan senide. Bertan hitz egindakoak, beti ere, intimitatean mantentzen dituzte.

Azpimarragarria da, bada, emakumeen sostengu emozionala izan direla moja hauek. Emakumeekin harreman estuagoa garatu dute, generoaren araberako rol, lan eta espazioen banaketa argia egiten baitute eta zentzu horretan, genero bereko pertsonekin sozializatzea hobetsi dute.

5.3.4. Borondatezko lanak

Badira zenbait lan mojek Oñatiko herritarrei musu truk egindakoak. Horien artean ezaguna da, adibidez, Corpus Christi eguneko prozesiorako arropak garbitu, gorde eta hamabost egun lehenago prestatzen dituztela Santa Anako mojek. Oñatiko dantzarien arropak garbitzeaz ere eurak arduratzen dira eta orain bi urte banda berriak josi zituzten. Txorimaloen jantziak ere haiek garbitu izan dituzte, lehen borondatez, eta egun, Udalak ordaintzen die.

Zailtasun ekonomikoak izan dituzten pertsona eta familiei laguntza eman diete hiru komunitateek modu askotara: bertara laguntza eske agertu izan direnei jatekoa eta arropa garbia eskaini izan diete. Aipatzen dute orain berrogei urte manta bila agertzen zela jendea; egun ez dela gertatzen, baina oraintsu Ukrainako gerratik zetorren familia bat izan dute Santa Anako harrera etxean.



Bigarren eskuko arropa banatu izan dute, urte luzez: arropa bildu, garbitu, desinfektatu eta paketeak eginda banatu izan dituzte, bai Oñatin, bai atzerrira bidalita. Egun, Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen du arropa eta materialen bilketa, bigarren erabilerarako.

Garapen bidean dauden herrirentzat laguntza ekonomikoa ere eman izan dute; edota orain, migrazioaren aldeko mugimenduen baitan, Hotz Oñati elkartearen Aita Mari Itsasontzia diruz lagundu izan dute.

Ahal duten neurrian laguntzeko borondatea izan dute eta barrura begirako bizitza izanagatik, ez dira errealitateari bizkarra emanda bizi. Saiatzen dira herriarentzat garrantzitsuak diren ekimen eta tradizioetan euren alea jartzen eta injustizia bizi duten pertsonen laguntzen.

5.3.5. Kongregazioen etorkizuna eta jendartearen fede falta aurrez aurre

Etorkizunaz ere aritu gara mojekin, eta euren ikuspegi jaso dugu. Euren misioa da Jesusen bidea egitea jendarte justuago baterantz. Misio horretan, baina, badago oztopo edo gabezia bat, hots, jendartearen fede falta. Mijek komunitate bizitzaren amaiera ere irudikatu dute, eta horrekin batera herriaren aldetik jasotzen duten aitortzaz gogoeta egin dute.

Gizartean balioen gabezia handia ikusten dute hiru komunitateetako mojek. Balioen gabezia absolutua dagoela adierazi barik, gainbehera nabaritzen dute: balioetan aberasten joan beharrean, balioak galtzen ari direla ikusten dute. Adibide gisa ipini dituzte gerrak, emakumeen kontrako abusuak, indarkeria, hilketak, bazterketa soziala, eskoletako bullying-a. Egungo errealitatea konfiguratu dute zapalkuntza ugarik eta horren ondorio dira indarkeria forma ezberdinak. Mijek indarkeria bera seinalatzen dute, baina ez dute sistema bera seinalatu. Euren irudiko, baliorik ez egotearen emaitza da indarkeria; izan ere, uste dute erlijio ikasgaia kendu denetik, ez direla balioak behar bezala transmititzen.

Kritiko agertu dira eskola curriculumetik erlijioa kentzearekin. Akats bat dela iruditzen zaie, elementu soziologiko gisa ulertuta, balioak transmititzeko baliagarria zela iruditzen baitzitzaie. Eskolan erlijioaren historia eman beharko litzatekeela uste dute Santa Anako Klaratarrek, eta hortaz harago, "giza hezkuntza" ere eman beharko litzateke, balioak transmititzeko. Erlijioa barne esperientzia izan beharko lukeela uste dute eta guztientzat berdina inposatu barik, sustatu egin beharko litzateke espiritualitatea.



Jendartean balioen falta dagoela jasotzen dute hedabideetatik, baina nabarmentzen dute, oraindik ere, badaudela laguntzeko borondatea duten pertsonak. Santa Anako Klaratar baten iritziz, laguntzen duten pertsona horiek kritikatuak izaten dira maiz, izan ere, euren ikusarazi egiten dute, oro har, jendartean dagoen elkartasun falta. Aipatu dute errefuxiatu eta migranteen eskubideen alde lanean ari direnen lana. Eredugarria iruditzen zaie moja guztiei.

Dioenez, erlijioa ez da entzuten Oñatiko kaleetan, ekimenetan, hedabideetan eta oso kritiko da horrekin. Federik gabe, jendarte galbidera doala sinesten dute. Jarraitu beharreko bidez galdetuta, Ebanjelioa aipatzen dute. Jesusen hitza ekintzetara ekartzea da euren misioa eta nahiko lukete hori jendartean ikusi, baina ez da hori errealitatea.

5.3.6. Boterea: aitortza ala estigma?

Jendarteko aitortza ala estigmatizazioa jasotzen duten, galdera egin diogu gure buruari. Errealitate hori aztertzeke, beharrezkoa da emakume hauen botereaz gogoeta egitea. Bada, emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ezagututa, ikuspegi feministatik egiten dugun galdera da: mojek izan al dute boterea? Teresa Del Vallek *Las mujeres en Euskalherria. Ayer y hoy* (1985) liburuak boterea eta arduraren artean egiten duen banaketa aintzat hartuta, esan daiteke emakume horiek ardura izan dutela, euren komunitate proiektu propioa garatzeko, baina ezin daiteke esan boterea zutenik.

Izan ere, Eliza erakundearen baitako kongregazioetan antolatzen ziren eta horiek emakumez osatuta egonagatik ere, komunitateek misio bati erantzun diote: Jesusen jarraitzaile izatea. Alegia, euren sinesmenaren jarraitzaileak izan dira eta Eliza erakunde patriarkalaren menpe egon dira. Arauak Elizak jarri izan ditu eta berau gizonezkoek gidatu izan dute. Bada, emakume mojak espazio pribatura zokoratu dituzte eta funtzio bat eman zaie: enplegu feminizatuak izan eta otoitz egitea eta balio kristauak zabaltzea. Funtzio hau Elizak ez du



ikusgarri egiten, gizon apaizena ez bezala, eta beraz, aitortzarik ez dio ematen.

Ildo beretik, Oñatiko mojek ez dute errekonozimendua bilatu nahi izan, ez Elizan, ezta herriaren ere: euren ekarpen eta lana isilekoa izan da eta hala izan behar duela sinisten dute, neurri handi batean. Kongregazioetik hurbil egon diren herritarrak, batez ere, herriko emakume nagusiek aski ezagutzen dituztela diote, baina guztiz ezezagunak dira gainerakoan. Hala ere, esan modura, aitortza jasotzea ez da euren helburua ezta egitekoa.

Bada, pertsonok aitortu eta balioetsi ohi dugu ezagutzen duguna edota identifikatuta sentitzen garen hori. Bada, kristau fedearen gainbeherak ere lotura zuzena du erlijiosuen balioespenean. Dena dela, balioespen horretan bada genero-arrakala: Arantzazuko frantziskanoak euren anaiak dira eta haiekin alderatuta, nabarmen ezagunagoak dira: euskararen eta herrigintzaren alde egindakoa errekonozitzen zaie apaizei, baina erabat ezezaguna da, neurri berean, tokian tokiko eskola komunitateen atzean egon diren ahizpak. Jada aipatu den modura, euskararen transmisiorako eskolak ematen lehenengotarikoak izan zirela gauza ezezaguna da askorentzat.

Pertsonen aitortzan ere genero-arrakala dagoela sinistuta gaude munduari ikuspegi feministatik begiratzen diogunok eta ezagutza, memoria historikoa eta aitortza-aren bidean pausu garrantzitsua dela uste dugu. Bada, Oñatiko hiru komunitate hauen izaera, bizimodua eta ekarpena zein izan den ezagutzeko saiakera hau baliagarria da guztiontzat, nagusientzat ez ezik gazteontzat ere. Izan ere, ikuspegi feministatik mojen bizitzari erreparatuta, konturatzen gara emakume hauek, jendarteko gainerako emakumeak bezalaxe, bigarren mailako hiritartzat hartu izan direla, herritar askok estigmatizatu egiten dituzte eta Eliza erakundeak isilpean eta ezkutu mantentzen dituzte.

Bada, jendarte patriarkal, kapitalista eta kolonialaren parte izan dira gainerako herritarrak bezalaxe eta euren egitekoak sistema iraurarazi egin du zentzu batzuetan, baina irauli egin du beste batzuetan. Mojak Eliza katolikoaren menpe egon dira eta ez dira boteretsuak izan, baina erakutsi dute komunitatean modu autonomoan, lidergo eta elkar-zaintzaz bizitzerik badela.

Laburbilduz, moja hauek anitzak izan dira eta izaera konplexua dute, giza-talde oro bezala; inoren bizitza idealizatu barik, jaiotzetik zahartzarorako igaro dituzten garai sozial, politiko eta ekonomiko guztien isla dira emakume hauek; komunitatearen aldeko apustua egin

zuten gazterik eta zoriontsu izan direla diote. Jendeak esaten omen die bizi-hautu horregatik gauza asko galdu dituztela, baina haiek sinesten dute moja-bizitzak asko eman diela. Bada, emakume hauek infantilizatu eta biktimizatu baino, ikuspegi feministatik interesgarriagoa da eurekin hitz egin eta sujetu gisa aitortzea.



6. AZKEN EZTABAIDA

Ikerketa-lan honek Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta herriari egindako ekarpenaren ikuspegi orokor bat aurkeztu du ikuspegi feministatik. Hemezortzi hilabete iraun dituen azterlan honetan Oñatiko hiru komentuuetako mojen iritziak bildu dira galdetegi eta talde-eztabaiden bitartez. Metodologia horretatik abiatuta saiatu gara proiektu honetan planteatutako helburuak erdiesten, hipotesiak egiaztatzen eta ikergalderak erantzuten.

Ikerketatik bildutako datuak ulertzeko, interpretatzeko eta aurkitutakoaren kontakizuna idazteko alde bateko eta besteko ikuspuntu teorikoak arakatu ditugu lehenik. Kasu honetan, marko teorikoan aurreratutako teoria feministak erabili ditugu. Ikusi dugu, batetik, egungo sexu-genero sistemak eraginda emakumezkoen hautemate sozial zein pertsonalean hainbat ezaugarri daudela grabaturik: goxotasuna, hauskortasuna, emozionalitatea, gutxiagotasuna, zaintza, etab. Eta ustezko bereizgarri horien arabera egokitzen eta doitzen dugula gure portaera (diziplina inposatua). Bestetik, ikusi dugu jokabide hori, bere horretan, ezin daitekela esan negatiboa edo okerra denik, betiere emakumezkoen hautu propioa (autodiziplina) eginda jarduten bada, noski. Hain zuzen, autodiziplina eta inposaturik datoren diziplinaren arteko harreman gatazkatsuak Elizatik kanpo ere ematen dira. Sarritan ikus daitezke herri mugimenduetan, aktibismoan edota militantzian guztiz diziplinaturik dauden jarrerak, ia-ia erlijio-doktrinen antzera jokatzen dutenak. Honekin esan nahi dena da Elizan bakarrik ez direla ematen inposaturik datozen aginduak, hots, beste egitura batzuetan ere erlijio-gidaliburuetatik gertu dauden testu eta ekintza iraultzaileak proposatzen eta jarraitzen direla; salbamendua izango balitz bezala. Hala, mojek egiten duten “entrega” hori

jendarteko beste esparru batzuetan ere gertatzen dela nabarmendu behar da.

Bestalde, eskema asko bezalaxe, erlijioarena eta mojaena ere maskulinitatetik eraikiak izan direla arakatu dugu, baina Oñatiko mojak patro horiei jarraikiz bizi ote diren jakin nahi genuen; ea emakume komunitatean bizita, genero-sistema hori bestela bizi zuten ala ez. Izan ere, komentu barruan gauzatzen dituzten botok, Elizako egitura hierarkikoak, eta, bereziki, isiltasunaren kulturak mojen egoera larriagotzen du emakume moduan. Mojek dakarten subordinazioari dagokionez, feminismotik egin daitekeen irakurketa da badaudela moduak Elizak praktikatzan duen menderakuntza-sistemari iskin egiteko eta eskusioa eta bazterketa arbuia-tuz modu asanblearioan erabakiak hartzeko eta bizitzeko. Beraz, mojek badute sexu-genero sistema binario eta heteronormatibotik aldentzeko autonomia nahikoa.

Bestalde, balio kristau eta feministen artean bateragarritasunak eta talkak daudela ikusi dugu. Oñatiko mojak eta feminismoa lotzen dituzten praktiken artean argiro ikusten da anbizioa, lidergoa, adimena, autoritatea, kritika, erresistentzia eta ahizpatasuna. Elkarrizketatuek jarritako adibideetan ikus zitekeen hori, izan hezkuntza-proiektuetan edo haien lan-bizitzan zehar. Talkak ere egon badaude, komentu batzuetan praktika feministak agerikoagoak direla ikusi dugu (autonomia, autogestioa, komunitateari ekarpen espirituala egiteko xedea, elkar zaintza, indarkeria matxistaren arbuia-keta, emakumeak botereguneetan egoteko nahia, etab.) eta beste batzuetan ikuspegi patriarkal sendoagoa somatu dugu (gizon eta emakumeen lan-banaketa naturalizatzea, emakumeen azpiraketa kulturala justifikatzea, homofobia eta transfobia, heteronormatibitatea babes-

tea, fedegabekoeiko mespretxua, etab.). Marra gorriak ere badituzte, LGTBQA+ kolektiboaren alderriekin bat egiten badute ere, kasu batzuetan, belaualdien arteko amildegia sakona da oraindik; batzuek Bibliak islatutako azpiraketa kulturalari (genero-sistema) atxikirik jarraitzen baitute.

Bizimoduari dagokionean, mojen komunitate-bizitzak balioa du ikuspegi feminista batetik. Ahizpatasuna gorpuzten dute eta lan-pertsonala eta kolektiboa uztartu. Pertsonala eta kolektiboa, biak ala biak, garrantzitsuak eta elkar osagarriak direla sinisten dute, euren aburuz, zoriontasunaren bilaketan. Zentzu horretan, elkarrekin otoitz egiteko eta lanerako zein aisialdirako denbora dute; era berean, bakardaderako gordetzen dituzte momentu batzuk eta horiek beharrezkoak direla aldarrikatu, norbere ezagutzan sakontzeko.

Euren gabezia, ahuleziak zein dohainak ezagutzen dituzte eta horiek oinarri izanda, *zerbitzua* ematen dute. *Zerbitzuaren* oinarritzko elementuak dira botoak: garbitasun, obediencia eta pobrezia. Boto hauek ez doaz bizi dugun jendarte indibidualista eta kontsumistaren norabide berean; areago, jendarteko zapalkuntza eta injustizien jakitun dira, baina ez dute kontzientzia politikoa modu bateratuan garatzen. Zentzu horretan, mojen artean iritzi politiko anitzak daude.

Antolaketa modua antzekoa da hiru komunitateetan: abadesa da arduraduna eta Kontseiluak hartzen ditu erabakiak. Guztiek finantza eta kudeaketa propioa dute; burujabeak dira. Sostengu ekonomikorako lehen diru iturria enplegua izan da: lan feminizatuak egin dituzte, izan hezkuntzan, izan esku lanetan. Generoen araberako lanen banaketa erreproduzitu dute eta zentzu horretan, lan-intelektualera dedikatutako apaizekin alderatuta, errekonozimendu eta ikusgarritasun gutxiago izan dute. Honek harreman zuzena du egun bizi dugun sexu- genero-sistemarekin eta gizonezkoen eta emakumezkoen rolek nahiz errekonozimenduekin.

Egun, ahizpen gehiengoa pentsioduna da eta zaintza beharrak areagotu zaizkie; kristau bizitzak agindu bezala, elkar-zaintzak garrantzia berezia du. Hala, menpeko pertsonen arretarako kanpoko laguntza jasotzen dute eta ahizpen artean lanak banatzen dituzte euren arreta komunitariorako. Azpimarratzen dute komunitateko moja guztiak direla baliotsuak, duten osasun egoera eta lanerako gaitasuna edozein dela.

Moja hauek bizi-ibilbide luzea dute eta Oñatiko herriari egindako ekarpena esanguratsua izan da hainbat alorretan: euren helburuetako bat izan da elkarte-bizitzarekin eredu izatea, alegia, kristau bizitza onaren eredu

ematea: elkar zaintzea eta laguntzea. Bestetik, moja Beneditarren ekarpen behinena izan da eskola-proiektua: balioen transmisiorako tresna. Horretaz gain, hiru komunitateek egin dute borondatezko lana eta ekarpena izan herriko zein Euskal Herriko elkartasun elkarteentzat. Azkenik, herriko emakume andanaren sostengu emozionala ere izan dira, Oñatiko emakume-mojak.

Amaitzeko, emakume-mojen bizitza idealizatzeko asmotik urrundurik, esan genezake, erlijioari atxikirik dagoen kolektibo bat izanda, oraindik ere instituzio eklesiastikoen balio kontserbadoreen motxila berekin dakartela mojek. Hau da, klasismoaren, arrazismoaren, praktika patriarkal eta garai bateko biolentzia eta autoritatea oraindik subjektu hauen ekarpenak iluntzen dituztela. Jakitun gara, halaber, erlijio-subjektu asko botere-sistemen epizentroan kokatzen dituela gaur egun jendarteak, baina subjektu horietatik guztietatik egiaztatu dugu Oñatiko hiru komentuetako mojak eratzeko posizioetara baztertuak izateko rola izan dutela mendez mendez. Ez bakarrik erlijio-instituzioetan, baita Oñati herrian ere.





7. ERREFERENTZIAK

- Agirre, L. eta Eskisabel, I. (2019). *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismitik euskarara*. Lisipe 7, Zarautz, Susa.
- Aguilera Bermúdez, B. (2014). *Trabas, educación y talento: Josefa Amar y Borbón*. Universitat Jaume I. [Gradu Amaierako Lana]. <https://bit.ly/31Xq8FG>
- Albarrán Méndez, S. (2020). La revuelta feminista llega también a las mujeres de la Iglesia. *El Salto*. <https://bit.ly/3J3iWlQ>
- Alonso Seoane, M. J. A. (2019). La invisibilidad de las mujeres en las religiones. *Aposta. Revista de Ciencias Sociales*, (82), 8-12.
- Alonso, R. (2017). Las monjas de la Edad Media no respetaban la clausura. [online] *El mundo.es*. Sarean eskuragai: <https://bit.ly/3yTQLY8>
- Beauvoir, Simone de (2019). *El segundo sexo*. Madril, Ediciones Cátedra.
- Blázquez Rodríguez, María Isabel (2021). Reflexiones sobre las mujeres y el feminismo en el cristianismo a propósito del 8 de marzo. *Cuestiones de Pluralismo*, Vol. 1, 1. <https://bit.ly/3m6YD3g>
- Bravo, C. (2018). Feminismo y religión. *El plural.com*. <https://bit.ly/3e75ci9>
- Butler, J. (1990). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. New York, Routledge.
- Cabral, B. E., Garcia, T. (1998). *Masculino/Femenino... ¿Y yo?* *Identidad o Identidades de Género*. Repositorio Institucional de la Universidad de los Andes. Universidad de los Andes, Venezuela. <http://www.saber.ula.ve/handle/123456789/16351>.
- Camps, V., Valcárcel, A. (2007). *Hablemos de Dios*. Madril, Editorial Taurus.
- Claret, A. María. (1851). Avisos muy útiles a las casadas», *Colección de varios opúsculos* (vol. I), Bartzelona, Imprenta de los herederos de la V. Pla.
- Curb, R., & Manahan, N. (1985). *Monjas lesbianas: se rompe el silencio*. Bartzelona, Seix Barral.
- Delgado, M. (1993). *Las palabras de otro hombre. Anticlericalismo y misoginia*, Bartzelona: Muchnick.
- Epelde, E; Aranguren, M; Retolaza, I. (2015). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin Elkarte.
- Esteban, M.L (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Lisipe 2, Zarautz, Susa.
- Esteban, M.L. (2004). *Antropología del cuerpo: género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona, Ediciones Bellaterra.
- Daly, M. (1973). *Beyond God the Father: Toward a Philosophy of Women's Liberation*. Boston, Beacon Press.
- Davis, A. (2005). *Mujeres, raza y clase*. Madril, Ediciones Akal.

- Fausto-Sterling, A. (1992). *Myths of Gender: Biological Theories about Women and Men*. New York, Basic Books,
- Gamba, S. (2008ko martxo). *Feminismo: historia y corrientes*. Mujeres en red. <https://www.mujeresenred.net/spip.php?article1397>
- Gomez Acebo, I., (2003). Dios en la teología feminista: estado de la cuestión. *Estudios eclesíasticos: Revista de investigación e información teológica y canónica*. Vol. 78, 304, 107-125.
- Halberstam, J. (2008). *Masculinidad femenina*. Madril, Egales.
- Intxaustegi, N. J. (2017). Beatas, Beaterios y conventos: origen de la vida conventual femenina vasca. in [Imago temporis: Medium Aevum 11: 329-341. <https://doi.org/10.21001/itma.2017.11.13>
- Irizar, I. (2017). *Karitateko Alabei Esker onez. Tributo a las Hijas de la Caridad*. Oñati.
- Lagarde, M. (1993). *Identidad Genérica y Feminismo*. Zientzia antropologiko eta etnologikoen Nazioarteko XIII. Biltzarrean aurkeztutako ponentzia. Mexico.
- Lanzagorta Arco, M. J., eta Molero Esteban, M. Á. (1999). *Los Lazarraga y el convento de Bidaurreta (siglos XVI-XVIII): un linaje en la historia de Oñate*. Donostia, Eusko Ikaskuntza
- La Margarita (1871)*. 20. zenbakia, abuztua.
- Martin Gaité, C (1987). *Desde la ventana. Enfoque femenino de la literatura española*. II.edizioa, Madril.
- Mendizabal Mujika, M (2002). *Las Monjas de Santa Ana de Oñati. Cinco siglos, tres casas una misión*. Arantzazu, Edizio frantziskotarrak.
- Mínguez Blasco, R. (2016). ¿Fanáticas, maternas o feministas? Monjas y congregacionistas en la España decimonónica. *Hispania Sacra*, 68(137), 391-402.
- Mínguez Blasco, (2012). Monjas, esposas y madres católicas: una panorámica de la feminización de la religión en España a mediados del siglo XIX, *Amnis*, 11. Sarean irakurgai: <http://journals.openedition.org/amnis/1606>.
- Olaso Sopela, O. (2023-03-06). *Zaintza sistema feminismotik iraultzeko prozesuari hasiera emanen diote martxoak 8kari*. Argia. [https://www.argia.eus/argia-astekaria/2815/zaintza-sistema-feminismotik-iraultzeko-pro-](https://www.argia.eus/argia-astekaria/2815/zaintza-sistema-feminismotik-iraultzeko-prozesuari-hasiera-emanen-diote-martxoak-8-kari)
- Pius, A. (2019-09-04). *Unas monjas peligrosas las benedictinas. Germinas Germinabit*. <https://germinansgerminabit.blogspot.com/2019/09/unas-monjas-peligrosas-las-benedictinas.html>
- Preciado, P.B. (2002). *Manifiesto Contrasexual*. Bartzelona, Editorial Anagrama.
- Rivera, M^a M. (2005). Las beguinas y beatas, las trovadoras y las cátaras: el sentido libre del ser mujer. I. Morant (dir.), *Historia de las mujeres en España y América Latina: vol. I*, 745-767. Madril: Cátedra.
- Roca y Cornet, J. (1868). *Manual de madres católicas*. Bartzelona.
- Sagastizabal, Marina (2020). *Hiruki gatazkatsua*. Susa, Zaurutz.
- Save the Children (2021). *Los abusos sexuales hacia la infancia en España*. Safe the Children.<https://www.savethechildren.es/actualidad/analisis-abusos-sexuales-infancia-espana>
- Saramago, J. (2009). *Cain*. Madril, Afaguara.
- Varela, I. (2021-10-06). Monjas, peste y sexo lésbico. *Pikara Magazine*. <https://www.pikaramagazine.com/2021/10/monjas-pestes-sexo-lesbico/>
- Voices of Faith (2018). Voices of Faith International Women's Day Promotion. [Youtube Bideoa]. Sarean ikusgai: https://www.youtube.com/watch?v=_bixJyeGVGs
- Yetano Laguna, A. (2000). Congregaciones religiosas femeninas: algunos datos sobre el movimiento fundacional en Cataluña durante el siglo XIX. *Analecta sacra tarraconensia: Revista de ciències historicoeclesiàstiques*, (73), 161-174.



Selma Huxley Barkham bilduma

ISBN: 978-84-921814-7-6



9 788492 181476



SELMA
HUXLEY
BARKHAM



OÑATI
dabilen herria